



Erandioko Goierri auzoko baserri-tradizioa elikatzen dabiren proiektu gaztea abiatu dute: Solotxu ▶6

Mikel Ituarte Zarraga pianista getxoztarrari gorazarre egingo dio Bilboko Orkestra Sinfonikoak. Beragaz egin dugu berba kontu horretaz. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



20. zenbakia

2015eko
ekainaren 11tik
ekainaren 17ra arte

«Jendeak ez daki zer den feminista izatea»

Lorena Cabnal guatemaltarrak feminismo komunitarioaz berba egin du. ▶16



SAKONEAN URIBE KOSTA

Ekainak 21: Bilbora!

Erabakitze-eskubidea aldarrikatetik, «erabaki hori zelan eta noiz gauzatu» eztabaidatzera pasa gura du Gure Esku Dago ekimenak. Horretarako, dozenaka mila herritarren parte-hartzea eskatu du. Uribekostarrak San Mamesera joatera deitu ditu. ▶22

HERRIZ HERRI LEIOA

Leioako leku-izenak

Berbaldun egitasmoko lagunek toponimoak ezagutzeko ibilbidea egingo dute hilaren 12an, Mikel Gorrotxategiaz. ▶7

KULTURA BARRIKA

Barrikan, hasi dira dantzan

San Juan jaiak hasi aurretik, ibilaldi herrikoia, margo lehiaketa, argazkilaritza-rallya eta pintxo-poteoa egingo dituzte. ▶14

Kuadrilla Eguna egingo dute aurtien ere hilaren 13an, zapatua, Itzubaltzeta/Romon, bertoko kuadrillek antolatuta. ▶3

Sanjuanak hasi barik ere, ekitaldirik ez da faltako Leioan: pop-rocka, antzinako eguna, eta jota-sariketa egingo dira. ▶7

Berangoko ekoizleen ardoak ezagutarazteko, Txakolin Eguna egingo dute hilaren 14an, domeka. ▶10

2015-2019 legegintzaldirako eskualdeko udalbatzak osatuko dituzte hilaren 13an, zapatua. ▶10

Getxo



GETXOKO UDALA

Birziklapena arte bihurtuz

Gauzatu dute daborduko BirziklaTUarte sariketaren egitasmoa; guztira sei edukiontzi apaindu dituzte, Itzurbaltzeta/Romon eta Areetan.

Daborduko burutu dute beiren edukiontziak apaintzeko BirziklaTUarte egitasmoa. Ekinenak bigarren saria irabazi zuen iazko Wanted ideia lehiaketan. Hala, egitasmo horregaz bestelako lehiaketa bat zabaldu zuten, eta apirilaren 24ra arte egon da sariketa horretan izena emateko aukera, bakarka

edo taldeka (gehienez hiru lagunek osatutako taldeetan). Bada, irabazleak hurrengo gazteak izan dira: Edurne Peraita Rafael eta Nerea Unanua Ochoantesana (Kresaltzu kalea, Lope de Vega kaleko kantoian; Itzurbaltzeta/Romo), Endika Basaguren Ansoleaga (Los Puentes kalea, 2, Itzurbaltzeta/Romo), Estibaliz Amo Diaz (Santa

Ana kalea, Novia Salcedoko kantoian; Areetan), Ruth Sao Pedro Sanchez eta Maria Jesus Sanchez Hernandez (Serantes kalea, 1; Itzurbaltzeta/Romo), Susana Sertutxa Garcia eta Olaiz Rivas Iburgurengoitia (Nagusi kalea, 1; Areetan), eta Marta Ramirez Cores eta Nerea Marquez Txarramendieta (Tomas Olabari kalea, 15; Areetan).

Edukiontziak margotu ostean, epaimahai batek horiek guztiak baloratuko ditu, eta sari bi banatuko ditu: bata, 900 eurokoa, eta bestea, 200 eurokoa. ◀

BirziklaTUarte

Parte-hartzaileak

Edurne Peraita eta Nerea Unanua
Kresaltzu kalea, Lope de Vega kaleko kantoian; Itzurbaltzeta/Romo.

Endika Basaguren

Los Puentes kalea, 2; Itzurbaltzeta Romo.

Estibaliz Amo

Sta. Ana kalea, Novia Salcedo kantoian; Areetan.

Ruth Sao Pedro eta Maria Jesus Sanchez

Serantes kalea, 1; Itzurbaltzeta/Romo.

Susana Sertutxa eta Olaiz Rivas

Nagusi kalea, 1; Areetan.

Marta Ramirez eta Nerea Marquez

Tomas Olabari kalea, 15; Areetan.




UDAKO KURTSOAK

OPTIMIST / LASER / J80 / OMEGA / 420

Hastapen eta Aurreratua

Goizez (10:00-14h) eta Arratsaldez (15:30-19:30h)

Kurtsuak INGELEZ

30€tik

Ekainak 22tik – Ekainak 26ra
 Ekainak 29tik – Uztailak 3ra
 Uztailak 6tik – Uztailak 10era
 Uztailak 13tik – Uztailak 17ra
 Uztailak 20tik – Uztailak 24ra
 Uztailak 27tik – Uztailak 31ra
 Abuztuak 3tik – Abuztuak 7ra
 Abuztuak 10etik – Abuztuak 14ra
 Abuztuak 17tik – Abuztuak 21era
 Abuztuak 24tik – Abuztuak 28ra
 Abuztuak 31tik – Irailak 4ra
 Irailak 7tik – Irailak 11ra

 Pakea Bela Eskola
 @PakeaBelaEskola

*Galdetu kurtsu data gehiago!
 Astelahanetik-Ostiralera 10-14h, larunbat eta igandeetan 10-15h.

Tel: 944916632 // 944913596
 www.pakeabizkaia.com/eu/proyecto-pakea/escuela_vela_getxo
 Email: info@pakeabizkaia.com









Getxo Pakea Bela Eskola

http://www.pakeabizkaia.com

Muelle Amiluzea s/n Pabellón de Vela

48990 - Getxo, Bizkaia



Getxo eta Donostia, Estatuko garestienak etxea erosteko

Getxo da Espainiako estatu osoan etxebizitza garestienak dituen udalerria, Donostiaren ostean; Espainiako Sustapen Ministerioak zabalduko datuen arabera. Hala ere, Etxebizitzen prezioak behera egin du 2015eko lehenengo hiruhilekoan, iazko epe beragaz alderatuta, bai EAEn, bai Nafarroan: % 1,47 eta % 3,15, hurrenez hurren.

Emandako datuen arabera, EAEn 2.405,1 eurokoa da etxebizitza librearen batez besteko prezioa, metro koadroko; Nafarroan, aldiz, 1.360,8 eurokoa. Lurraldeka, Gipuzkoan daude garestienak, 2.666 eurogaz. Bizkaian, metro koadroak 2.382 euro balio du, eta Araban, berriz, 1.938 euro. Espainiako estatuko datuak alderatuz gero, aldea nabarmena da, batez bestekoa 1.457,9 eurokoa baita. 25.000 biztanletik gorako udalerriei erreparratuta, Donostia da garestiena, 2.995,8 euro metro koadroko; Getxo da bigarrena, Bartzelona eta Madril hirietako etxebizitzaren batez besteko prezioen gainetik. ◀

Utopian-en udako campusak, ume eta gazteentzat

Oporraldian ohikoa da neska-mutil gazteentzako campusak egitea, eta eskualdean aukera askotarikoa da; udan, batez ere. Hori horrela, aukeren artean dago Utopian taldeak eskaintzen duen udako campusa. Astelehenetik barikura, hainbat jarduerara landuko dituzte: astelehenetan, hondartzara joan eta sukaldaritza tailerra; martitzenetan, antzerkia eta jolasak; eguaztenetan, hondartza eta tailer sorpresa; eguaztenetan, antzerkia, dantza sortzailea, eta jolasak; eta barikuetan, hondartza eta lorezaintza. 14 eta 17 urte arteko gazteentzat ere egingo dute campusa. Horretan, egunero joango dira Gorlizko hondartzara, bertan jarduerak egiteko, berbarako: zirkua, orientazioa, boleibola, eta antzerki eta sukaldaritza tailerrak. Eurria ari duen egunetan, antzerkia egingo dutela jakinarazi dute arduradunek. Campus bakoitzaren prezioa 90 eurokoa izango da, aste osoko jarduerak egiteko; ostera, egun solteetan joan gura dutenek 20 euro ordaindu behar dute. ◀

Getxo

Kuadrillentzako eguna

Itzubaltzeta/Romoko auzokideek, aurten ere, Koadrila Eguna antolatute, hilaren 13an.

Azken urteotan legez, Itzubaltzeta/Romoko kuadrillak Santa Eugenia plazan batu-ko dira, festa giroan. Aurtengoa hamargarren ekitaldia izango da eta, ohi den legez, auzoko kuadrillek egun osoko egitaraua prestatu dute herrian giro ezin hobea sortzeko.

Eguerdiko 12:00etan emango diote hasiera txupinaren jaurtzeagaz batera. Horren ostean, triki-poteoa egingo dute eztarriak freskatzeko eta herria girotzeko. 15:00ak jotzean lagun-talde guztiak Santa Eugenia plazara hurre-ratu, eta tripa aseko dituzte bazkariagaz; ondoren, kantatzeko tartea ere



Aurtengoa hamargarren edizioa izango da.

izango dute karaokeagaz. Bertaratu-takoen argazki erraldoia egingo dute 17:30ean, eta iluntzean poteoari ekingo diote, berriro. Ginkana ere izango dute aukeran lagunartek arrastian. Proba horien sari-banaketa gauerdi-


ko 00:00etan izango da, hau da, poteoa amaitzean. Ez ahaztu: bazkarirako txartela erosi beharra dago; hilaren 10era arte egongo da horretarako aukera, 6 euroan; bestela, egunean bertan erosiz gero, 12 euro. ◀

Nazioarteko Paella lehiaketarako toldoak banatuko dituzte

Urtero legez, uztailaren 25ean izango da Itxas Argia elkarteak antolatutako Nazioarteko Paella lehiaketa, Getxoko hilerriaren eta Galeako gotorlekuaren atzeko landan. Antolatzailerak jakinarazi dutenez, daborduko olanen jabe direnen artean, uztailaren 6an eta 7an banatuko dituzte, 19:00etatik 21:00etara, Itxas Argiaren egoitzan. Olanak jabetzan ez dituztenek, berriz, uztailaren 9an, 21:00etan, egingo den zozketari itxoin beharko diote. Toldoa itzultzeko eguna uztailaren 28a izango da, bakoitzak jaso duen orduan bueltatuko du toldoa. Toldo zati bat edo osorik har daiteke, 45 edo 90 euroan, hurrenez hurren. Antolatzailerak jakinarazi dutenez, «guztiz beharrezkoa» da tiketa erotea olanak hartzeko zein bueltatzeko; hori egin ezean, «ez da toldorik emango, ezta jasoko ere». ◀

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA **UDAKO IKASTARO TRINKOAK**

CURSILLOS INTENSIVOS DE VERANO 2015



Uztailak 1 - 24 Julio (90 ordu)

URRATS GUZTIAK

8.00etatik 13:30etara

Matrikula: Maiatzaren 25etik ekainaren 26ra
Sarrera probak: Ekainaren 10-17-24an. 12:00etan

Todos los niveles. De 8:00 a 13:30h.
Matrikula: del 25 de mayo al 26 de junio
Pruebas de nivel: Junio 10-17-24 a las 12:00h.

99,00 €

Irailak 2 - 25 Septiembre (85 ordu)


HABEren 1-2-3. MAILAK

8.00etatik 13:30etara

Matrikula: Maiatzaren 25etik uztailaren 17ra

HABE. Niveles 1, 2 y 3. De 8:00 a 13:30h.
Matrikula: del 25 de mayo al 17 de julio

93,50 €



Getxo

LOPE DE VEGA, 12 - 48930 (Romo)
tfnoak: 94 464 62 99 / 94 464 65 02 · e-posta: euskaltegi@getxo.net

Getxo

Getxo



Hilaren 13an, zapatuan, Pirata Eguna egingo du ItzubalTxiki aisialdi-taldeak. © ITZUBALTXIKI

«Auzoko umeen artean ez dago harremanik»

ItzubalTxiki taldeak aisialdi alternatiboa eskaintzen du, auzoko ume eta gazteen harremanak sustatzeko; zapaturo, 16:30ean elkartzen dira, Santa Eugenia plazan.

IKER RINCON MORENO ▶

Itzubaltzeta / Romoko hainbat lagun elkartu dira, eta taldea sortu dute auzoko 5 eta 15 urte arteko neska-mutilentzako aisialdi alternatiboa eskaintzeko: «euren arteko harremanak sustatu ahal izateko».

Zer da ItzubalTxiki?

Itzubaltzetako haurren eta gazteen aisialdirako talde bat gara. Proiektuagaz, euren arteko harremanak sustatu nahi dugu; azken finean, euren arteko

harremanak oso urriak dira herrian, eta gero eta gehiago bakartzen dira talde bakoitza berean.

Zer adin tarteko neska-mutilak hartzen dituzue? Edo, nori zuzendutzen diozue zuen eskaintza?

Proiektua 5 eta 15 urte arteko haur eta gazteei bideratuta dago. Talde txikiak sortzea da ideia, zaila delako 5 urteko ume bat 12 urteko beste bategaz nahastea; ez dituzte ezaugarri berdinak. Hala ere, momentuz denak nahastuta izaten ditugu. Denon artean jolas zehatzak egiten saiatzen gara, guztion

parte hartzea bilatzen dugu, nagusiak txikiagoen eredu direlako.

Zer dela eta otu zitzaizuen aisialdi-taldea osatzearen ideia?

Gabezia handi bat ikusten genuen herrian. Haur eta gazteen artean ez dago inolako harremanik, ez dute herrian parte hartzen, eta hori arazo larria iruditzen zitzaigun. Azken finean, talde horiek herriaren etorkizuna dira, errelebo horrek egon behar du. Gu txikitatik jolasten ginen kalean, plazak betetzen genituen... Kalea erabiltzen genuen; gaur eguneko gazteek, or-

dea, ez dute hori egiten. Hori ikusita, 4-5 pertsona bildu ginen eta, buruan bueltak eman eta luze pentsatu ostean, ItzubalTxiki sortu genuen.

Zein da zuen eredu alternatiboa?

Gure kasuan, ez zaizkigu gustatzen Udalak Itzubaltzetan eskaintzen dituen alternatibak. Uste dugu ez dagoela haurrentzako alternatibarik; dagoen eskaintza gehiena ordaintzekoa da, eta balioak ez dituzte nahikoa lantzen. Hala, horri buelta eman nahi genion. Uste dugu gazte horiek herrian parte hartu behar dutela, ekintzak parekidetasunean egin beharko lituzketela, inklusioa bilatu behar genuela, ama lurraren defentsa eta, nola ez, euskara eta euskal kulturaren sustapena ere bai. Argi dago badaudela beste talde batzuk adin tarte horiekaz lan edo ekintzaren bat edo beste egiten dutenak, eta Udalak ere gauzak egiten dituela, baina ez dira nahikoak.

Umeakaz zaudetenean, zer motatako jarduerak egiten dituzue?

Bi ordu eta erdi egoten gara umeakaz, zapaturo. Normalean jolas batzuek hasten gara, kirola egitekoak, eta gero tailerrak egiten ditugu. Ondoren, fruta ematen diegu askarian, eta bestelako jolasakaz jarraitzen dugu. Jolasetan beti saiatzen gara kooperatiboak izaten, lehiakortasuna saihesten dugu, baina zaila da... Horrez gain, egun osoko jarduerak ere planteatzen ditugu, berbarako: hilaren 13an, zapatuan, Pirata Eguna egingo dugu. Tailer bereziak prestatuko ditugu, eta mozo-rotu ere egingo gara. Irteerak ere egiten saiatuko gara, mendi-irteerak edota egun-pasakoak.

Interesa duenak zer egin behar du jarduera horietan parte hartzeko?

Zapaturo elkartzen gara: 16:30ean jartzen dugu hitzordua Santa Eugenia plazan, eta 19:00ak arte egoten gara. Egin behar den gauza bakarria ordu horretan han izatea da. ◀

UDAKO IKASTAROAK 2015

UDAN ERE EUSKAHALDUNDU ZAITEZ!

EUSKALTEGIAK

2 ASTEKOBARNETEGIAK

FAMILIA BARNETEGIAK

BARNETEGI IBILTARIAK

673 200 100 · 946 464 000

www.aek.eus

aek

URIBE KOSTA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Leica - 944645063
lamia@aek.org

Getxo - 944304734
kuxaxeta@aek.org

Pientzia - 946773607
jenlibaso@aek.org

Gorliz - 946773646
jenlibaso@aek.org

www.aek.eus/blogak/uribekosta
www.facebook.com/uribekosta.aek

PINTXOAK

OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:

RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK

AFARIAK ETA URTEBETETZEAK

ENKARGUZ

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, guxi denik ez prentsa”

Prentsa - Frutu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1

Tf. 94 430 22 13

GETXO

OSTABIDE HORTZ KLINIKAK

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina

ALGORTA

94 430 76 96

Erandoio

Faoetako jaiak

Ekainak 11, eguena

- 12:00 Txupina.
- 14:00 Meza.
- 15:00 Herri-bazkaria.
- 17:00 Briska txapelketa emakumeentzat.
- 19:00 Igeltoka txapelketa.

Ekainak 13, zapatua

- 12:30 Puzgarriak, eta Gelo tronpalarien erakustaldia.
- 14:30 Paella.
- 17:00 Herri-kantak trikitiagaz.
- 19:00 Olgetan Solas sendientzako jolasak.
- 21:00 Txixi-burruntzia eta dantzaldia.

Ekainak 14, domeka

- 12:30 Kalejira eta dantza-erakustaldia.
- 18:00 Tiragoma txapelketa.

Goierriko jaiak

Ekainak 13, zapatua

- 09:00 Sukalkia eta suziri-jaurtiketa.
- 12:30 Meza, hamaiketako eta trikitiak.
- 14:00 Sukalki-lapikoen aurkezpena.
- 17:30 Lur-gaineko Euskadiko sokatira txapelketa, 640 kilokoa.
- 17:30 Umeentzako jolasak.
- 19:30 Umeentzako diskoteka.
- 20:00 Sukalkiren sariak, eta saiheski-jana.
- 24:00 Disko-festa.

Ekainak 14, domeka

- 12:30 Ospakizuna.
- 13:00 Auzoko umeek abestutako kantak.
- 18:30 Umeen jolasak, eta idi-probak.



Kukularrako jaiak ere ekaina amaitu aurretik izango dira. © ERANDIOKO UDALA

Goierri eta Faoetako jaiak aste akabuan

Eguenetik domekara, festak izango dira Erandioko auzo bitan: Faoetan San Bernabe jaiak ospatuko dituzte; Goierriin, ostera, San Antonio jaiak hartuko ditu Martiartuk.

Ohi den legez, Gorpuzti jaien eta Kukularrako festen artean heldu dira San Bernabe eta San Antonio omentzen dituzten Faoetako eta Goierriko jaiak. Biek ala biek familia giroan gozatzeko aukerak eskainiko dituzte. Halere, Goierriin, lehenengo mai-

lako kirol proba izango da, Martiartu dorretxearen azpian. Bertan jokatu dute 640 kiloko Euskadiko sokatira-txapelketa, lur-gainekoa. Maiatzean, Berriatuan, 680 kilokoa lortu zuten garaipena Goiherri Sokatira Taldekoek; asmo beragaz zelairatuko dira. ◀

Berdintasunez gozatzeko deia egin dute herriko jaietan

Berdintasunean oinarritutako eta «sexismorik gabeko jaiak» aldarrikatu ditu Erandioko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak. Salatu duenez, «emakumeenganako indarkeria jaietan hauek ere» agerikoa da. Horren aurrean, «guztion inplikazioa» beharrezkotzat jo du, «errespetu-jarrerak sustatuz, inor diskriminatu barik. Ho-

rrela, emakumeentzako jai-gune seguruak sortuko ditugu, askatasun osoz mugitu eta dibertitu ahal izateko». Modu berean, jaietan etxeko beharrak eta beste pertsonen zaintza-lanak biderkatu egiten direla kontuan hartu, eta gizonen zein emakumeen artean banatzera deitu du, denek jaietz gozatzeko. ◀

Altzagako jaietako zapiak Erandio Kirol Taldea omenduko du

Abuztuko San Agustin jaietako zapiak aukeratzeko lehiaketa abiatu du Erandioko Jai-batzordeak. Lanak martitzenera arte aurkez daitezke Udaletxean, Kultur Arloan. Diseinuen Erandiogaz lotura izan eta Erandio Kirol Taldea kontuan hartu beharko dute, horren mendeurrena dela-eta. ◀

info+: [facebook.com/erandioko.jaibatzerdea](https://www.facebook.com/erandioko.jaibatzerdea)



Itsasertzetik

GUILLERMO MALAINA MARTINEZ
Irakaslea

Alfonbra gorri gutxiago eta bidegorri gehiago

Laurant Fignon, pozaren pozez, Anoetako Belodromo-ko ohorezko biran, oroitze hutsak zirrara egiten dit oraino, 30 urte igarota. Menderrakaitza zen txirindulari frantsesa, bizikleta gainean zein kazetari aurrean, eta buruan zerbilkiona esateko ohitura zuen, esanak garratzak izanda ere. Horrexegatik leku askotan gorroto zioten. Hemen, ordea, euskal zaleen maitasuna jaso ohi zuen eta, zoriontsu, eskertu.

Fignonek legez, itzal handiko beste txirindulari askok euskal zaleenganako errespetua aitortu dute eta euren jarrera goretsi, txiringa gainean maitatuak sentitu direlako bide-ertzetako txalo zaparradez eta adorez.

Baina txirindularitza zaleak etxean arrotz. Kirol hau Euskal Herrian puntakoa izanda, ez da ulergarria instituzioek erakusten duten sentsibilitate eza, are gutxiago Europan non ikasi dutelarik. Hemen ospe handiko kontuak atsegin dituzte agintean dauden politikariek. Euskal txirindularien garaipenen omenaldietan alfonbra gorria eta guzti jartzen dute. Bidegorria, ordea, ez da beren lehentasuna, hauteskunde kanpainan, salbu.

Gogoratzekoa da, esaterako, 2004koa. Kongresurako EAJren hautagai bat Erandiora etorri zen Espainiako Gobernua-ri eskatzeko Getxo eta Bilboren arteko bidegorria egin zezan, itsasadarreko errepidearen eskuduntza Madrili baitagokio. Harrezkero tutik ere ez. EAJren hautagaia eskaera hura egiteko bizikletaz ibili balitz, sikiera. Baina ez. Txalupa batean sartu zen, askoz ere seguruago.

Gaur egun nire lagun Felipek ere gauza bera egiten du auto batek birritan atzetik harrapatu ostean. Mirariz bizirik diraue-nez, txiringa txalupan sartu, itsasadarra gurutzatu eta ezker-raldeko bidegorritik ibili ohi da. ◀



LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINITZA

SGS Nº ES108014 SGS Nº ES108015

- Soropila Ezartzea
Luzonra prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtzioak organitze lanak eta esate lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea
Mazka, ureztatzea, organitzea, eguraztea, aratzea eta desinfectatzea, berrikatzea, soropil goiztak eta belar goiztoak tratatzea.
- Inausketak
Hatzeko, mantentzeko, beritxeko, zuhaitza apaingarriak inauszea, ezabatzeko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Arpe ibaiertza 28A behelgo solariva B12 Lokala (ERANDIO) Megi: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net - www.luberr.biz

OIARBIDE
DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaia, baioak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoliarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, GETXO

txakoli
mota
ganeTx
txakolina

leioa-urbe errepidea 34 (Mazada Parke) Goheri Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

Erando



Solotxu aurrera joateagaz batera, espero dute jende gehiago animatzea nekazaritza-sektorean sartzen.

«Kimikarik gabe, mimo handiz egiten dugu lan»

Emakume gazte nekazariak dira Ana De la Maza algortarra, Ainara Flores Compains lesakarra eta Maialen Txantre Irazoki berarra. Hirurek Solotxu proiektuari ekin diote Akarlandan, naturagaz hartu-emanen bizi eta baserri-tradizioari segida emateko.

INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Solotxuko kideek harreman zuzena bilatzen dute kontsumitzailearen eta ekoizlearen artean. Ekarpina egin gura diote Erandioko Goierrri auzoari ere, baserri-kultura gal ez dadin, eta nekazaritza lot dadin pedagogia libreagaz edota jolasakaz. Asteburuan, domo bat eraikitzeke ikastaroa hartuko dute, UK-natura eta Motagane txakolindegia-
ren laguntzaz. Ikastaroan parte hartu gura duenak, oraindino, aukera dau-

ka izena emateko. Horrez gainera, ortu-labirintoa ere osatu gura dute.

Zer da Solotxu?

Leku bat da, eta kristoren ilusioarekin sortzen ari gara. Solotxuk badi-tu hiru adar. Lehenengoa, nekazaritza-produkzioa: bertako produktuen salmenta egiteko. Permakultura edo nekazaritza ekologikoa dei genezake; kimikarik gabe eta mimo handiarekin egiten dugu lan. Bigarrena da sentibilizazioa, lurra gertutik bizitzeko aukera ematea, tailerren bidez; urtebetetzeak eskaintzen hasiko gara. Azkena

da harreman-sarea eratzea nekazari-ekin eta interesa duenarekin. Egun be-reziak egingo ditugu, jendea elkartu eta harremanak egiteko. Askotan, bizi garen erritmoan ez dugu astirik eta.

Zelan hasi zineten?

Gazte Ekoliderrak izeneko master-edo batean ezagutu genuen elkar; proiektu bat egin behar genuen. Sasoi hartan, Motagane txakolindegia ezagutu genuen. Soloari beste bizitza bat eman nahi zioten, eta geu ipini ginen horretan. Proiektuari bueltak ematen hasi ginen 2014ko martxoan-edo. Berez tal-

de handiagoa ginen, baina gu hirurak gelditu ginen aurrera eramateko: guk gogoak genituen bizi-proiektu beza-la hartzeko. Elkarrekin eta Motagane txakolindegikoekin gehiago lantzen hasi ginen irail aldean, proiektuari forma gehiago ematen. Soloan lanean, martxotik gaude. Gero, hona bizitzera etorri ginen, eta lurrean sartu ginen, udaberrian, udakoa prestatzen.

Orain arte zer arazo izan dituzue?

[Barreak]. Proiektua planteatu dugu, hagitz handia da, eta mila gauza hagitik politikak sor daitezke. Kostatu zaigu esatea: «zentratuko gara honetan, eta bertze gauzak aparte utziko ditugu».

Produkzioan zabiltzate buru-belarri?

Bai. Udan saiatuko gara produkzio polit bat ateratzen, harreman-sare bat egiten, interesa duen jendeak saskia astero erosteko konpromisoa har dezan. Parkean jende anitz ibiltzen denez, salmenta zuzena egiteko aukera badago, erraz etorri ahal delako baratzera, eta ikusi. Eta tailerrekin hasi nahi dugu, hezkuntza landuz.

Zer nobedade dituzue laister?

Domoa izango da gure inaugurazioa, publikoari begira. Polita da: Euskal Herrian gaude, eta aterpe bat egin behar genuen. Hasieran negutegia izango zen, gero proposatu ziguten domoa edo iglu moduko egurrezko kupula geodesikoaren ideia. Horretan dabilen hemengo elkarte bat ezagutu genuen: UK-natura. Eta garrantzia eman genion sarea sortzeari. Orduan beraiek ere aukeratzat jo zuten, ez baitute inoiz egin domo bat. Erabaki zuten formatzea horretan, ilusioarekin hartzea. Orain, aukera horrekin bertze domo bat eraikitzea eskatu diete, eta ikusten dugu elkarlanetik ateratzen direla gauzak. Eraikuntza erakargarri eta berezia izango da hirukiz egindako esfera erdi hori; horrek sor ditzake aukera ezberdinak. ◀

info+: [facebook.com/solotxu.bizitzaelikatzen](https://www.facebook.com/solotxu.bizitzaelikatzen)

PSE-EEK zinegotzi bat gehiago izango du Udalbatzan

PSE-EEK 1.743 boto eta 4 zinegotzi lortu ditu Erandion, eta ez 1.728 eta 3, Espainiako Barne Ministerioak maiatzaren 24tik iragarri izan duenez. Beraz, bere eserlekuari eutsiko dio Antonio Perez Espinosa orain arteko zinegotzi sozialistak. EH Bildu 1.750 bototik 1.741era pasa da, eta Lourdes Cerrato Ocerinek eserlekua galdu du. Biek onartu dute Bilboko Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakia. ◀



Jose Antonio Perez.

Berdintasuna eta maskulinitate berriak zabaltzeko asmoz

Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean, «Berdintasuna eta maskulinitate berriak» izeneko argazki-erakusketa ikusgai dago, ekainaren 19ra arte. Lanak Piper Txuriak Bilboko gizon-elkarteak sortu ditu, honako gaiak buruz: parekidetasuna, erantzunkidetasuna, emakumeekiko bortxakeria-eza, jabekuntza, eta gizonen arteko afektibotasuna. Piper Txuriaren kideek «zirrikitu bat zabaldu gura» diete «gi-

zon izateko eredu nagusiagaz bat ez datozen gizonei», eta «gai horietaz inoiz hausnartu ez direnengana ere heldu gura» dute, «hausnarketa egiteko gogoia pizteko». Ekainaren 17an, eguaztena, gaiaren gaineko berbaldia emango dute Josu Muruetako gela urdinean, 19:00etan. Haurtzaindegi zerbizua baliatzeko, ekainaren 12a baino lehen abisatu beharra dago. ◀

info+: 944 175 616

Leioa

Sanjuanak hasi aurretik ere, dantzan



Gehienez 20 bikotek dantzatu dute jota txapelketan. © KULTUR LEIOA

San Juan jaietako txupina ekainaren 19an botako duten arren, urtero legez, jarduera ugari egongo da aurreko aste akabuan. Bestek beste, hilaren 12an, barikua, Pop-rock lehiaketako finalak jokatu dira Kandelazubieta kiroldegian. Hitzordua 22:00etan ipini dute, eta sarrera doan izango da. Metal atalean, The Descent (Bilbo) eta Bullets of Misery (Gernika) igoko dira agertokira; pop-rokeroan, oster, Mr. Perdigans (Ciudad Real) eta Atikus Finch (Iruña) taldeen artean izango da norgehiagoka.

Zapatuan, Antzinako Eguna egingo du Mugi Leioako Gazteak elkarteak, Kultur Leioagaz elkarlanean: besteak beste, sukalki txapelketa, bertsolariak, euskal dantzak, herri-bazkaria eta betiko jolasak egongo dira; 10:00etatik aurrera, Joxe Migel Barandiaran Behekoa institutuan. Gauean, Gazte Sua jaialdia ospatuko dute, Ikea Barrin; 19:30etik aurrera, kontzertua emango dute Amargor, Herio, Horas Muertas eta NHC taldeek. Horien ostean, musika ipiniko dute Liii eta Distrir DJek.

Azkenik, domekan, Leioako Udalen XV. Jota Txapelketaz gozatzeko

aukera egongo da, beste hainbat jardueraren artean. 12:00etan izango da, Kandelazubietan. Izena emateko epea ekainaren 11n amaituko da, 18:00etan. Maila bi ezarri dituzte: 16 urte baino gutxiagoko dantzariak, eta 16 urtetik gorakoak. Gehienez, 10 bikote onartuko dituzte maila bakoitzeko. ◀

Egitaraua

Ekainak 12, barikua

22:00 Pop-rock lehiaketako finalak, Kandelazubieta kiroldegian.

Ekainak 13, zapatua

10:00 Antzinako Eguneko sukalki txapelketa izena ematea, Ikea Barri plazan.

11:00 Bertsolari zirikatzaileak, Joxe Migel Barandiaran Behekoa institutuan.

12:00 Umeentzako diskoteka Xaiborregaz, Ikea Barrin.

15:00 Antzinako Eguneko bazkaria, Joxe Migel Barandiaran Behekoa institutuan.

19:30 Gazte Sua musika-jaialdia: Amargor, Herio, Horas Muertas eta NHC. Ostean, Liii eta Distrir DJak egongo dira; Ikea Barrin.

Ekainak 14, domeka

12:00 Leioako Udalen XV. Jota Txapelketa, Kandelazubietan.

egitarau osoa: www.kulturleioa.com

Leioako leku-izenak ezagutzeko ibilbidea egingo dute barikuan

Ekainaren 12an, barikua, Leioako leku-izenak ezagutzeko ibilbidea egingo dute Berbaldun egitasmoak lagunek. Goizeko 10:15ean abiatuko dira Leioako metro-geltoki aurretik, Aketxe auzora joateko; eta bertatik Ondizera joango dira. Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiko Onomastika Zerbitzuaren arduraduna izango dute gidari.

2012ko azaroaren 14an, *Leioako leku-izenak* liburua herritarren eskura ipini zuten Udalak eta Euskaltzaindiak, aurreko hiru urteetan udalerrian egindako toponimia ikerketa-lanaren emaitzak batu eta gero. Gorrotxategi izan zen liburuaren egileetako bat. ◀

Euskararen erabileraz hausnartuko dute, Herrigunek sustatuta

Ekainaren 12 eta 13rako, komunitate-ekintza antolatu du Herrigune Leioa egitasmoak, euskara eta erabileraz aztertze, eta hartaz berba egiteko. Udondoko Boulevardean lotuko dira egun bietan: barikuan, arratsalde, 17:30etik 20:00etara; eta zapatuan, egun osoz, 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 18:00etara. Jarduera elebrietan izango da. Izena-ematea itxita badago ere, telefonoz deitzeko aukera zabaldu dute Herrigunekoek, parte hartzeko lekuri dagoen galdetzeko.

Bestalde, 17:30etik aurrera, zapatuan bertan, Zientzia Kalera jarduerara eta Ezagutzen Azoka egingo dituzte Avanzada alboko Boulevardean. 18:00etan hasita, oster, herriko antzinako etxe eta baserriak ezagutzeko aukera egongo da, Javier Arenaza gidari izango dela. Azkenik, Boulevardean bertan, 18:30etik aurrera, dantzak eta karaokea egongo dira.

info+: herrigune.org
944 029 780 / 635 738 931



Krisalida

JOXE BELMONTE F. DE LARRINOA
Idazlea

Txistuak eta zaratak Nou Campen

Futbolak sarri ekartzen dizkigu berri txarrak, erasoak, irainak, baita hildakoak ere. Maiatzaren 30ean Barzelonan 70.000 bat athletic-zale egon ziren *Athletic g(e)u gara* hori handitzeko asotan, Barsazaleekin nahastuta. Ez istilu, ez eztabaida, ez tirabirarik, bat ere ez. Are gehiago, giro ona, jai eta parranda.

Komunikabide espainiar gehienek, ordea, Espainiaren ereserkiari egindako txistukada azpimarratu zuten, protesta zena delitu bihurtuta, ia. Zer pentsa ematen du. Txistukada eskubidezko protesta edo errespetu faltaren adierazlea? Horrainsola! Kontua harantzago eramatea leinu zaharreko espainiar nazionalismoaren kasketaldia da.

Franco diktadoreak utzitako monarkia, bandera eta ereserkiaren aurrean protesta egitea zilegia da, euskaldunek, katalanek zein espainiarrek egina. Diktadurak berreskuratu zituen sinboloak ontzat hartu dituzten espainiarrek iraintzat hartu dute. Jakina.

Erraz esaten da politika eta kirola ez direla nahastu behar. Baina palkoan agintari zibilak eta militarrek, uniformeak eta guzti, zeuden. Presiditzen zuena ere militarra da, eta ez du inork hautatzen. Espainian Kopak Errege Kopa izena du, lehen *Generalísimo*. Palkoa, beraz, politikatan blai zegoen. Horretaz zantalzarik ez.

Orain zalantzak, irakurleak argitu ditzan: politika alarde horri txistuak dedikatzea herritarren adierazpen askatasunaren erakusgarria da, edota errespetu faltaren seinale? Adierazpen askatasuna errespetuaren mugetara murriztu behar da? Non daude errespetu eta errespetugabearen arteko mugak? Sinbolo guztiek merezi dute errespetua? Eta azkenik, agian inportanteena: ez al da pentsatu behar zergatik izan ziren hainbeste txistu? ◀

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez. Tf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

Sopela

Surf-enpresen arteko topaketa, irailean

Sopela Kosta fest jaialdiaren barruan egingo da Surf Business Speed Meeting-a. Angeluko eta Uribe Kostako surf-arloko enpresek parte hartuko dute topaketa horretan.



Topaketan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

Surf Business Speed Meeting hori, badakizu zer den? Topaketa bat da, eta surf-arloko enpresak eta ekintzaileak elkartuko ditu. Sopela Kosta Fest jaialdian egingo da, irailaren 25ean, barikuagaz. Topaketan, Angeluko (Lapurdi) Leku guneko enpresak elkartuko dira Sopelako zein Uribe Kostako hainbat enpresa, betiere aipatu arloan lanean dabiltzanak. Olatu Leku gunek surfaren eta natura-kirolen enpresak batzen ditu Angelun; hain zuzen ere, negozioen arteko elkarlanerako gunea da.

Kurtzio kultur etxean egingo da Surf Business Speed Meeting topaketa, eta esperientziak partekatu ahalko dituzte bertan Euskal Herriko alde bietako enpresek. Horrela, antzeko interes komertziala daukaten profesionalak elkarlanean jardungo dute modu zuzenean eta bizian.

Informazioa eta lan-prozedurak trukatea da helburua. Hala, surf-munduagaz lotura eta ilusioa partekatzen dituzten alderdi geografiko bien harremana finkatu eta estutu ahalko da.

Negozio-arloari dagokionez, as-

kotarikoak dira topaketan parte hartuko duten enpresak, besteak beste: kirol-produktuen sortzaileak, komunikazioko eta marketineko enpresak, ingeniari informatikoak, ikus-entzunezko ekoizleak, ehun-diseinatzaileak, eta abar. Baina zertan datza Bussines Speed Meeting-a? Dinamika bat da, eta enpresen arteko elkarriketa arinen eta eraginkorren bitartez bideratzen da; informazioa trukatzeko dute enpresek, eta elkarlana sortzen da modu horretan. Topaketari amaiera emateko koktel bat egingo da, ekintzaileen eta parte-hartzaileen arteko loturak sendotzeko.

Beraz, arlo horretako enpresarik badaukazu, topaketan parte hartzeko aukera duzu. Horretarako, aldez aurretik izena eman behar duzu, ondoko helbide elektronikora mezua igorritz: KultuTeko1@sopela.eus. Hala ere, izen-ematearen edo topaketaren gaineko informaziorik gura baduzu edo zalantzarik izanez gero, ipini harremanetan Kurtzio Kultur Etxeagaz, telefono honetan: 944 065 505. ◀

info +: www.sopelakostafest.com

Jardunean dira Sopelbusen udako zerbitzua eta TAO

Hilaren 21era arte ez gara sartuko Hudan, baina, gurean, daborduko, sasoi betean gabiltza. Izan ere, ekainaren lehenengotik jardunean dago hondartzaren inguruko TAO sistema, eta zapatutik aurrera, baita Sopelbus zerbitzuaren udako ordutegia ere.

Autobusen ordutegi berria irailaren 13ra artekoa izango da. Ibilgailuen aparkalekuaren mugaketa eta antolaketa kontrolatzeko TAO zerbitzua, berriz, irailaren 30era arte egongo da jardunean, hondartzetan eta egunero, 10:00etatik 20:00etara. Gehenez ere, eguneko 5 euro ordaindu behar dira.

Autobusak ordu erdiro ibiliko dira eten barik. Ibilbide nagusi bi egin-

go dituzte: bata, egoitzaren eta Atxabiribil hondartzaren artekoa; bestea, Larrabasterako metro-geltokiaren eta Arriatera hondartzaren artekoa. 10:00etatik 20:00etara bitartekoak izango dira ibilbide horiek, baina, gainera, goizean ordutegi eta ibilbide bereziak egingo ditu Sopelbusek.

Atxabiribil (markesina), Arriatera (triangu) eta Larrabasterako metro-geltokiaren artean 15 minuturik behin ibiliko dira autobusak, goizeko 07:00etatik 07:45era. Jarraian, 08:00etatik 09:30era, haur-eskolaraino joango dira, 30 minuturik behin. Joanaldia 0,70 euro kostatzen da, eta 10 bidaiako bonua, 5 euro. ◀

Autokarabanentzako aparkalekua zabalik, Urkon

Modian ei dago furgonetagaz bidaiatzea, prestatutako gunetan aparkatu, eta bertan lo egitea. Sopelan ere badago horretarako aukera, daborduko zabalik dago-eta autokarabanentzako aparkalekua, Urko kiroldegiaren alboan. Irailaren 30era arte erabil daiteke; 24 ibilgailuentzako lekua dauka, eta zerbitzu hauek eskaintzen ditu: zarama-ontziak, ur edangarria daukan iturria, ur grisak eta beltzak botatzeko lekua, argiztapena, eta abar. Hala ere, ura aldatzeko zerbitzuak urte osoan erabili ahal izango dira. Ur eta elektrizitate makinak erabiltzeko «jeton» txanponak beharrezkoak dira; turismo bulegoetan salgai daude euro batean.



Aparkalekuaren ordutegia da ekainean eta irailean: astelehenetik zapatuta, 10:00-14:00 eta 16:00-18:00; jai egunetan, 10:00-14:00; uztailean eta abuztuan: astelehenetik domekara, 10:00-15:00 eta 16:00-19:00. ◀

info +: www.turismoa.sopelaudala.org



Hurtzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus



GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA.
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaletxe aldean)



OFERTÓN MARTES Y SÁBADO

**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**
Bentabu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA



HEGALDIEN ATZERAPENEN KALTE-ORDAINAK
INDEMNIZACIÓN RETRASO VUELOS

Unibertsitatea

Selektibitatea egiten dabilta campusean

Barikura bitartean (ekainak 12), hiru egunez, unibertsitatera sartzeko proba egingo dute EHU batxilergoa amaitu duten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 9.552 ikaslek. Horiei denei gehitu behar zaizkie goimailako heziketa-ziklo bat egin duten eta fase espezifikora bakarrik aurkeztuko diren beste 651 neska-mutil. Selektibitatea eguaztenean hasi zen; 08:45etik 18:45era izan ziren azterketak. Bigarren egunean, eguena, hilak 11, 09:00etatik 18:45era arte iraungo dute, eta hirugarren egunean, bariakua, 09:00etatik 15:00etara.

Selektibitatearen harira, hezkuntza-eredu propio bat defendatu eta hezkuntza-komunitateagaz egungo ereduaren inguruko eztabaida «zabala eta argia» martxan ipintzeko eskatu diote Ikasle Abertzaleak (IA), Ernai, STEILAS, LAB eta Sortzen eragileek



Bi herenek egingo dute proba euskaraz.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari. «Bertako ikasleei eduki eta eredu arrotzak sartzeko asmoz» proba hori «Madrildik ezarri zigutela» adierazi dute. Gainera, ikasleak «euren etorkizuna erabat baldintzatuko duen azterketa egitera behartuta» daudela salatu dute. Barikuan, ekainak 12, manifestazioa egingo dute, 18:00etan, Bilboko Moyua plazatik abiatuta, *Selektibitateari ez!* goiburupean. ◀

Lasterketetarako ibilgailu elektrikoa egingo dute EHUn, Aldundiagaz batera

Bizkaiko Foru Aldundiak 80.000 Euro jarriko ditu, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko ikasleek *Formula Student* proiektuan parte har dezaten. Lehiaketa horretan Europa osoko unibertsitateek hartzen dute parte, eta AEBetako eta Australiako batzuek ere bai, eserleku bakarrek ibilgailu elektrikoakaz lehiatuz. Daborduko ingeniartzako 60 ikasleko talde bat sortu dute, hainbat lantaldean banatuta. Lehenengo, ibilgailua eta haren osagaiak diseinatuko dituzte; ondoren, ibilgailua muntatu, eta lehiatu aurreko probak egingo dituzte.

Bestalde, Aldundiak 8.000 euroko diru-laguntza emando dio EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolari, giza baliabideen eta enpleguaren kudeaketarako masterra finantzatzeko. Urte eta erdi iraungo du masterrak. ◀

Plentzia

Ikasturte amaierako erakustaldi zein erakusketak hartuko ditu Goñi Portalak

Ekaina, uda, azterketak... Eskolak amaitzeaz daude, eta urte osoan ikasitakoa erakusteko beharra dago daborduko. Hori horrela, biolin-eskolako ikasleek urte osoan batutako abileziak erakutsiko dizkiete ekainaren 14an, domeka, Goñi Portalera hurbiltzen diren guztiei. Entzunaldi horretarako hitzordua arrastiko 05:00etan ipini dute. Araldi kultur elkarteak antolatutako ikastaroetako parte-hartzaileek ere euren lanak erakutsiko dituzte Goñi Portaleko erakusketagelan. Hala, hilaren 12ra arte ehozirlan eta puntu tailerreko lanak ikusgai egongo dira. Ekainaren 15ean, berri, ume eta nagusien margo tailerreko obrak ikusi ahal izango dira, hilaren 26ra arte. Erakusketak bi horiek astelenetik barikura bisitatu ahal dira, goizeko 11:00etatik 13:00etara eta arrastiko 04:30etik 08:00etara. ◀

Lemoiz

Kaleko dantzen ikastaroa egingo dute hilaren 14an

Uda heltzeaz dago, eta horregaz batera, herrietako festak. Jai giroan, herrietako eta auzoetako txosnetan zein tabernetan, dantzatzeko garaia heldu da! Hala, dantza egitea gustuko dutenek edota dantzan ikasi gura dutenek aukera itzela izango dute hilaren 14an, domeka, Lemoizen. Bertaratuko direnek gerriak astintzen ikasiko dute kaleko doinuakaz, eguerdiko 12:00etatik 13:30era. Kaleko dantza delakoak estilo ugari hartzen ditu: hasi hip hopagaz eta *breakdance* famatuagaz, gaur eguneko *funk* dantza-estiloetaraino, *locking* edo *poping* de-



lakoak, barbarako. Ikastaro horretan parte hartzeko aldeztatik izena eman beharra dago, eta 8 euro ordaindu, kultur etxean bertan. ◀

info+: www.lemoiz.eu

Urduliz

Urdulizko lurren %0,3 erosi du Texaseko funts baten enpresak

Neinor Homes higiezin sozietateak Urdulizko hainbat bizitegi-gune erosi berri du Atzeragainen, 36. eremuan. Guztira, 23.000 metro² eskuratu ditu enpresak, elizateak dituen 7,8 kilometro koadroko azaleraren %0,29, alegia. Horregaz batera, Algortako Iturribarri II izeneko 24,2 eremuko 7.173 metro² eta Madrilgo lursail bat ere bereganatu ditu sozietateak; guztira, 22 milioi euroan. Enpresa maiatzean abiatu zuen Lone Star Texaseko funtsak; pasa den abenduan, Kutxabanken higiezin aktiboen %50 zeukan Neiner enpresak 930 milioi euroan erosi



ostean. Neiner Homesek «Espainiako aro berriko lehenengo bizitoki-sustatzaile handitzat» du bere burua. Kalekatzeak Stop plataformek, oster, Lone Star «funts putrea» dela salatu dute. ◀



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

Tf. 94 676 07 15

GURE
ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Amiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Urbe Kostako astekaria
hiruka

Zure taberna, jatetxea edota komertzioa
hemen agertzea gura baduzu
ipini zaitez gugaz harremanetan:

944 911 337
publi@hiruka.eus

www.hiruka.eus



Berango

Txakolin Eguna, ekainaren 14an

Txakolina gustuko duten guztiek aukera izango dute bertan egindako ardoa dastatzeko, hilaren 14an, domeka, Berangan. Izan ere, Txakolingileen Elkarteak Txakolin Eguna antolatu du egun horretarako. Aurtengoa XV. edizioa izango da.

Ohi den legez, jaialdira bertaraten diren guztiek kopa bat erosi behar dute, 4 euroan, eta horregaz, Nagusien Etxeko plazara (Sabino Arana kalea) etorritako 18 ekoizleen ardoa dastatu ahal izango dute, gura beste. Horrez gainera, antolatzaileek txoria eta gazta banatuko dituzte tripak ase ahal izateko. Jaialdia eguerdiko 12:00etan hasiko da, eta arrastiko 03:00etara arte luzatuko da.

Iñaki Escuderori gorazarre

Aurtengoa XV. edizioa izango da, eta aurtun Iñaki Aresti Escuderori ome-



naldia egingo diote; iaz zendu zen eta aurreko 14 urteetan elkarteko lehen-dakari izan zen.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, agurra dantzatuko diote omenaldiko ekitaldiari hasiera emateko; ondoren, Fredi Paia bertsolari algortarrak bertsoak bota, eta hirukote batek kantak abestuko ditu. Horren guztiaren ostean, Arestiren alargunari oparia emango diote Txakolingileen Elkarteak osatzen duten kideek. ◀

Gorliz

Berdintasunaren aldeko ordenantza

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egiteko ordenantza dauka Udalak.

Gorlizko Udalak gizona eta emakumezkoen arteko berdintasunaren alde lan egiteko ordenantza onartu zuen azkenengo udalbatzan. Hala, horrelako neurrien bat hartzen duen lehenengo udala izan da, hain zuzen. Aurreko batean ere, HAPOaren berrikuspenean, generoaren inguruko bestelako ikuspegia txertatu zuen lehenengo udala izan zen Bizkaian.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen mendekoa da Udalak onartu berri duen ordenantza. Hala, sexuen arteko berdintasun politiken oinarriak finkatu gura izan dituzte udalbatzan.

Berbarako, gaur egun bizi diren diskriminazio-egoerak identifikatu eta horiek amaitzeko neurriak diseinatu eta bultzatu nahi dituzte; halaber, entitate publikoen eta pribatuen arteko parte-hartzea eta kolaborazioa bilatuko dute.

Hori horrela, ordenantza horrek sexuen arteko diskriminazioari aurre egiteko Udalak jarraitu beharreko bi-deak markatzen ditu, besteak beste.

Guztien onarpenagaz

Ordenantza Emakunde eta Eudeleko langileek eta Estibalitz Anitua Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Berdintasun teknikariak landu dute. Era berean, Gorlizko Udala osatzen duten hiru alderdiek (EAJ, Independientek eta EH Bildu) begi onez hartu zuten aurkeztutako berdintasunaren aldeko proposamen hori. ◀

Uribe Kosta

Udalbatzak osatuko dituzte hilaren 13an, eskualde osoan

Hilaren 13an, zapatuagaz, udalbatza berriak osatzeko eta alkateak aukeratzeko osoko bilkurak egingo dituzte eskualdeko udalderri guztietan. Urduliztarrak izango dira goiztiarrenak: goizeko 8:30ean daukate hitzordua. Erandion, Leioan, Sopelan eta Barrikan ordu eta erdi berandua, 10:00etan, batuko dira maiatzaren 24ko udal hauteskundeetan aukeratzeko zinegotziak. Getxon, oster, 11:00etan ipini dute alkatea karguaz jabetzeko ekitaldia; eta Gorlizen zein Plentzian, eguerdiko 12:00etan izango dute zita. Eta azkenik, lemoiztarrak

eta berangoztarrak izango dira berantiarrenak, izan ere, udalbatza osatzeko bilkura eguerdiko 13:30ean ipini baitute. ◀

2015-2019 Udalbatzak

Ekainak 13, zapatua

- 08:30** Urduliz
- 10:00** Erandio, Leioa, Sopela eta Barrika
- 11:00** Getxo
- 12:00** Gorliz eta Plentzia
- 13:30** Lemoiz eta Berango

Bariku gauetan metroa har daiteke daborduko

Udaldia bertatik bertara... eta hori delata, Metro Bilbaok barikuetako gau osoko zerbitzu etenbakoari ekin dio daborduko. Joan den hilaren 5ean hasi zen martxan gaueko zerbitzu hori, eta trenak asteburu osoan ibiliko dira irailaren 25era arte. Modu berean, jai-bezperetan ere, trenak gelditu barik bidaiatuko dute gau osoan. Metro Bilbaoko arduradunek jakinarazi dutenez, neurri horregaz, 22.790 bi-

daia egin ziren iazko udako bariku gaubakoitzean, batez beste.

Maiztasunak

Aurten, ohi bezala, metroak honako maiztasunak izango ditu: Etxebarri eta San Inazio arteko trenak 15 minuturik behin igaroko dira; Basauri eta Kabiezes artekoak ordu erdiro, eta Etxebarri eta Plentzia artekoak beste horrenbestero. ◀

Hondartzetako bainurako denboraldia hasi da



Irailaren 30era arte iraungo du bainu-denboraldia.

Bizkaiko hondartzetako bainurako denboraldia hasi da daborduko, eta irailaren 30era arte luzatuko da. Gauzak horrela, EAeko bainu-denboraldi luzeena izango da gurea. Bizkaiko kostaldeko 28 harezteak eta bertako atsedenekuek martxan dituzte daborduko zerbitzu guztiak. Horieta, 18 hondartzak dituzte kalitate eta ingurumeneko ISO 9.001 eta 14.001 ziurtagiriak. Gainera, Bakio, Plentzia eta Arrietara-Atxabiribil hondartzek EMAS erregistroa lortu dute: ingurumenaren arloan Europar Batasunak ematen duen aipamen goren. Biz-

kaiko Foru Aldundiak hondartzetarako 2015rako duen programak 6 milioi eurotik gorako aurrekontua du, hondartzetako salbamendu eta sorospenerako, garbiketarako, mantentze-lanetarako eta irisgarritasun obretarako. Aurrekontu horretatik, honakoak nabarmentzeko moduak dira: 2,4 milioi euro hondartzak garbitze-lanetarako, eta 3 milioi euro baino gehiago hondartzetako segurtasunerako; hau da, salbamendu eta sorospen zerbitzurako. Egunerok, guztira, 87 sorosle ibiliko dira lanean; horietatik 40 Uribe Kostako harezteetan egongo dira. ◀



Bilboko Liburu Azokak ekainaren 3an zabaldu zituen ateak.

Liburuz gainezka

Peruko neskatoen aterpetxerako dirua batuko dute Getxoko Bigarren Eskuko Azoka Solidarioan, hilaren 17tik 21era bitartean.

Getxoko Kultur Etxeak antolatuta, ekainaren 17tik 21era bitartean, egingo dute Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioaren hamargarren edizioa, Algortako Villamonte kaleko kultur etxean. Udal liburutegiek eman ohi dituzte dohaintzan argitalpenak, gero horiek salmentan jartzeko euro baten

inguruan. Gobernu kanpoko erakunde batek sustatutako proiektuarentzat izaten da batutako diru dena. Oraingo honetan, Zabalketa GKEari emango diote jasoko dutena, Peruko Iquitos herriko Huambrillo neskatoentzako aterpetxea babesteko. Azokaren ordutegiari dagokionez, astelehenetik zapatara egongo da zabalik, goizean

zein arrastian: 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara. Domekan, ostera, goizez baino ez dute irekiko. Sarrera doakoa da.

Bilboko Liburu Azoka

Egitasmo solidarioentzako dirua batzeko ez bada ere, egunotan beste hainbat lekutan egiten dabilta liburu-azokak. Bilbon amaitzeaz daude Areatzan eta Bidebarrietako liburutegian antolatutako ekitaldiak. Hala ere, hilaren 14ra arte egongo da zer entzun bertan, liburuak erosteko aukeraz gainera. Besteak beste, eguaztenean, hilak 11, Yasmina Khadragaz egingo dute topaketa 19:00etatik aurrera, Bidebarrietan, Felix Linares telebista-aurkezleak gidatuta. Mohammed Moulessehoul da aipatutako idazle eta militar ohi aljeriarraren benetako izena, emakumezko ezizena erabili arren. Gaur egun gaztelaniara gehien itzultzen den egile arabiarretako bat da, eta bere lanen artean daude *Moritur*, *Las golondrinas de Kabul*, *El atentado*, eta *A que esperan los monos*. Beste hainbat libururen aurkezpenak alde batera utzi barik, azokaren azken egunean, umeentzako tailerrak eta magia ikuskizuna egongo dira Areatzan. ◀



Algortako Bertsolari Eskolako (ALBE) kide denak jarri ziren argazkirako. ITXASO PAIA

ALBEtarren egundoko emaitzak, Eskolarteko Bizkaiko finalean

Ekainaren 6an Igorreko Kiñu gaztetxean jokaturako Bizkaiko Eskolarteko Bertso Idatzien finalean, Fermin Reinicke algortarrak irabazi zuen (DBH 3, 4 eta Batxilergo-koen atalean); eta bere herrikide Mainer Barañano hirugarrena izan zen. DBHko 2. mailako artean, Algortako beste gazte batek, Gorka Zabalak, lortu zuen bigarren lekua; eta 6. maila-

koen atalean, Uxue Ramirez eta Lur Parris algortarrak lehenengo eta bigarren postuan lotu ziren. Azkenik, 5. mailako lehenengo saria, Amair Rasines sopoloztarrak eroan zuen.

Bat-bateko Bizkaiko finalari dagokionez, saio ederra egin zuten Paule Loizaga sopoloztarrak eta Unai Mendiburu algortarrak, baina ez zuten lortu Orioko buruz burukorako txartelik. ◀

Filipinen askatasuna aldarrikatuko dute Getxon, hilaren 14an

Ekainaren 14an, domeka, Filipinen independentzia aldarrikapenaren 117. urteurrena ospatuko dute bigarren aldiz Itzurbaltzeta / Romon eta Areetan, SIKAP EAeko filipinarren elkartek antolatuta. Hala, 11:00etan, independentzia meza egingo dute San Jose elizan. Arrastian, kulturen arteko desfilea egongo da, 17:00etan, Bizkaiko Zubian hasita; kalejira Xake plazan amaituko da. Bertan, jaialdia egingo dute 17:45etik 21:00etara bitartean. Horretan, besteak beste, dantza-ikuskizuna, tailerrak, erakusketa eta Filipinetako gastronomia-dastaketa egongo dira. SIKAP elkarteak 2009an sortu zuten, filipinarren eta getxoztarraren arteko elkarkidetzak sustatzeko. Besteak beste, folklorea lantzen dute.

1898ko ekainaren 12an Filipinak Espainiatik independizatu ziren. Ondorengo urteetan, Amerikako Estatu Batuek bereganatu zuten lurraldea. 1946ko uztailaren 4an, uharteren independentzia onartu zuten. ◀

Nino Bravoren kanta ezagunenak entzungai, Algortan

Ekainaren 17an, eguaztena, *Recordando a Nino Bravo* izenburuko kontzertua eskainiko dute Serafin Zubiri, Laia Banaches eta Felipe Garpe abeslariak, Areetako Andres Isasi Musika Eskolako Bandarekin batera. Hitzordua arrastiko 07:30ean ipini dute, Algortako Bihotz Alai plazan; eta sarrerak 5 euroan daude salgai, kultur etxean bertan eta Kutxabank-eko kutxazainetan eta webgunean. Alfontso Vilak zuzenduko du Andres Isasi Musika Eskolako Banda.

Getxoko Kultur Etxeak azaldu duenez, *Recordando a Nino Bravo* kontzertuak 70eko hamarkadara eroango ditu entzuleak, «belaunaldi oso batek ahaztu ezin dituen abestien eskutik»: «Cartas amarillas», «Un beso y una flor», «America», «Noelia»...

1944an jaio zen Luis Manuel Ferri Llopis (Nino Bravo ezizenez ezaguna), Ayelo de Malferit herrian (Valentzia). 28 urte baino ez zituela, trafiko istripu batean hil zen. ◀

hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2015eko ekainaren 11tik ekainaren 17ra arte



hiruka.eus



PLENTZIA

© TRAPU ZAHARRA

La Conga antzezlanana, ikusgai Goñi Portalean

Ekainaren 12an, barikua, Trapu Zaharra konpainiak *La Conga* antzezlanana antzeztuko du Goñi Portalean kultur etxean. Hitzordua iluntzeko 08:00etan ipini dute, eta sarrera doan da. Aipatutako obra euskaraz ere eskaini ohi du gehienbat kale-antzerkia egiten duen talde donostiarrak. Plentziarako, oraingoan, gaztelaniazko bertsoia aukeratu dute bertoko

kultur arduradunek. Besteak beste, ETBzko *Vaya Semanita* saioan nahiko ezagunak egin ziren Santi Ugalde eta Maribel Salas dira aktoreak *La Conga* antzezlanean, Oscar Terolen zuzendaritzaren pean.

Kontatzen duten istorioari dagozkionez, desanparatuen langileen sindikatua bere momentu txarrean dago, eta langile gehiago behar ditu.

Horretarako, eta ahal dela bere irudia hobetu ahal izateko, sei asteko tailerra antolatzen du. Tailerrean, birmoldatu egiten dituzte langabezia luza- ro egon diren pertsonak. Abade batek eroango du hori dena aurrera; konturatu barik, pertsonaen istorio denak desmuntatuko ditu, baita sindikatua- rena ere. Ordubeteko iraupena dauka emanaldiak. ◀

SOPELA Ekainaren 12an

Kurtzio K. Etxean
19:00etan



SOPELA

Desobedientziaren gainean berba egingo dute, Kurtzion

Desobedientzia, erresistentzia. Zertaz ari gara? goiburupean, ekainaren 12rako, barikua, berbaldia antolatzen du Menakoz elkarteak. Hitzordua 19:00etan ipini dute, Kurtzio kultur etxean. Desobedientzia-ekintzak tarteko epaitu dituzten hiru lagunek berba egingo dute: Mikel Zuloaga 18/98 sumarioan auzipetu zuten, desobedientzia zibilari buruzko *Piztu Euskal Herria* agria egin izana leporatuta; Gorka Ovejero tartarota zion Yolanda Barcinari, AHT-ren lanak salatzeke; eta Gabi Basañez zek zezenketen kontrako eserialdia egin zuten 1994an Sopelan. ◀

PLENTZIA

Danontzat «behin betiko» izango dela ospatuko dute

Plentziako hondartza alboko ontzi-gela izan zena Danontzat gaztetxeko neska-mutilei «behin betiko» uztea erabaki zuen matiazaren 18an Udaltzatzen. Hala, ekainaren 13an, zapatua, ospakizuna egingo dute gazteek. 19:00etatik aurrera elektrotzaranga ibiliko da herrirako kaleetan; eta 21:00etan argazki erraldoia egingo dute gaztetxean. «Lortutakoa herritar denek ikus dezatela gura dugu; elkarreak, musika-taldeak, kuadrillak eta gaztetxetik pasa den jendea gonbidatu gura ditugu», adierazi dute.



2015/06/13 - 11:00etatik aurrera

VI. Athletic Eguna

Mendiguren plaza | Erandio
Astrabuduko Athletic Goitiko zaleen taldeak antolatuta. Andoni Iraola omendu gura dute. Herri-bazkarirako txartelak 7 eurotan eskuratu daitezke Primera Linea eta Beltez tabernetan. Menua paella izango da.

2015/06/13 - 12:00etatik aurrera

X. Koadrila Eguna

2015/06/11 - 2015/06/13 - egitaraua begiratu

San Bernabe jaiak

Faoeta | Erandio
Egitarau osoa: www.erandio.net

2015/06/11 - 17:00 / 19:00

Txo, Mikmak txikia ikuskizuna

Bihotz Alai plaza | Getxo
Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsogaz. Euskaraz. Sarrera: 5 euro.

LEIOA

Naziotasunari buruz jardungo dute

Leioako Sortuk antolatuta, ekainaren 11n, eguena, *¿Por que necesitamos un Estado Vasco?* berbaldia eskainiko dute LABeko Txomin Lorkak, Oskar Arantza-bal ekonomistak eta Asier Blas EHUKo irakasleak, 20:00etan, Sakonetan. ◀

SOPELA

Jaien aurkezpena egingo dute zapatuan

Ekainaren 13an, zapatua, Sopolako San Pedro eta Larrabasterrako Karmen jaien aurkezpena egingo du herriko jai-batzordeak. Hitzordua 12:00etan izango da udaltxe aurreko plazan. Kartela eta egitaraua aurkeztuko dituzte. ◀

GORLIZ

Ekainean ere kontzertuak Xurruten

Xurrut pizzeria 30. urteurrena ospatzen ibili da maiatzean, kontzertu mordoa eskainiz. Ekainean ere egingo da zer entzun, berbarako: Hilaren 13an, zapatua, Tala Tumsi eta The Stators taldeek joko dute, 21:30ean. Sarrera: 5 euro. ◀

2015/06/11 - 17:00-19:00

Sagu maskara tailerra

Kultur etxea | Gorliz
Ludotekan, 5 eta 12 urte arteko umeentzat. Parte-hartzea libre.

2015/06/11 - 18:30

Gazta egiteko ikastaroa

Fadura Ostalaritza Eskola | Getxo
Getxoko Aste Berdearen barruan. Izena emateko: 944.660.191

2015/06/12 - 19:30

Joste Eguna

Josu Murueta plaza | Erandio
Gure Esku Dago-k antolatuta. Kalejira, herrian. Parte-hartzea libre.

2015/06/12 - 20:30

Kantagunea

Eliz plaza | Plentzia
Aide zaharretik abesten atera aurretik, entseguia egingo dute baselizan, 19:00etan. Parte-hartzea libre.

2015/06/12 - 22:00

Pop-rock lehiaketako finalak

Kandelazubieta kiroldegia | Leioa
Metal modalitatean, The Descent (Bilbo) eta Bullets of Misery (Gernika) taldeek joko dute. Pop-rock kategorian, Mr.Perdigans (Ciudad Real) eta Atikus Finch (Iruñea) bandek. Sarrera doan.

2015/06/13 - 2015/06/14 - egitaraua begiratu

San Antonio jaiak

Martiartu (Goierri) | Erandio
Egitarau osoa: www.erandio.net

2015/06/13 - 09:30

III. Ibilaldi Herrikoia

Golfo Norte taberna | Berrika
Bi ibilbide: bata, 13 kilometrokoa (09:30ean), eta bestea, 3,5 kilometrokoa (11:00etan). Izen-ematea, hilaren 12ra arte kultur gunean, edo egunean bertan, 08:00etatik aurrera Golfo Norte tabernan. Parte-hartzea doan.

2015/06/13 - 10:00etatik aurrera

Antzinako Eguna

Joxe Miguel Barandiaran Bekoa | Leioa
Besteak beste, eskupilota txapelketa, sukalki txapelketa, bertsolari zirikatzaileak, euskal dantzak eta herri-bazkaria egingo dira.

2015/06/13 - 10:30

Eskalada txapelketa herrikoia

Bulderra | Gorliz
Izen-ematea (2 euro), kultur etxean.

Izubaltzeta (Romo) | Getxo

Besteak beste, trikiti-poteoa, herri-bazkaria, karaokea eta ginkana egingo dira. Bazkariako txartelak, La Monan salgai, hilaren 10era arte: 6 euroan. Egunean, 12 euro.

2015/06/13 - 12:00-14:00

Margolari Gazteen Kanpoko

III. Lehiaketa

Iparralde tabernako apartakalekua | Berrika
17 urtera arteko neska-mutilek parte har dezakete, doan. San Juan jaieran banatuko dituzte. Saria. Informazioa: www.barrika.net

2015/06/13 - 16:00

Lagunarteko III. Triatloi Oso Herrikoia

Algortako Portu Zaharra | Getxo

Txorimalo gaztetxeak antolatuta. Parte-hartzaileek 13.300 metro egin behariko dituzte igeri egiten, bizikletan eta korrikan. Ixita dago izena emateko epea.

2015/06/13 - 19:30

Gazte Sua jaialdia

Ikea Barri plaza | Leioa

Amargor, Heño, Horas Muertas eta NHC taldeek joko dute. Ondoren, 23:30ean, Liji eta Distritor Djak. Sarrera doan.

2015/06/14 - 09:00etatik aurrera

Kosta Trail lasterketa

Udaletxe aurreko plaza | Sopela
Informazio gehiago: www.kostatrail.com

2015/06/14 - 09:00-14:30

I. Argazkilaritza Rally Digitala

Frontoia | Berrika

Goizeko 10:00etan hasita, 45 minuturik behin gai bat iragarriko du antolakuntzak; parte-hartzaileek lau argazki aukeratu (gai bakoitzeko bat), eta laurak memoria-txartel batean aurkeztu behariko dituzte frontoian, 13:45ak baino lehen. Izena emateko epea ixita dago.

2015/06/14 - 12:00-15:00

Txakolin Eguna

Sabino Arana kalea | Berango

Bertoko ekoizleen ardoen dastaketa. Txorizo eta gazta pintxoak ere egingo dira. Kopa ordainduta (4 euro) gura beste edateko aukera. Inaki Aresti (Algortako Inaki bitxitegia) zenari omenaldia egingo diote.

2015/06/14 - 12:00

XV. Jota Txapelketa

Kandelazubieta kiroldegian | Leioa

Umeek eta helduek dantzatuko dute. Izena emateko epea hilaren 11n bukatuko da, 18:00etan. Doan.

1 Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Euskaraz, Plentzian, Amonarizegaz

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuta, ekainaren 11n, eguena, XXI. *mendeko plentziar euskaldunak: Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada* berbaldia eskainiko du Kike Amonariz telebista-aurkezle gipuzkoarrek. Soziolinguista ere bada tolosarra. ◀

Noiz: Ekainak 11, eguena

Ordua: 19:00

Non: Goñi Portal kultur etxea

Sarrera: Doan

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:



Andy Hansonen dosia

**JON
URRAZA INTXAUSTI**
Aktorea

Tomate ekologikoak antzerkiolan

Kurtzioko oholtzan, ikasurtean zehar landutakoa, hurbildutako ikuslego zabalari erakusteko aukera izan genuen elkarlanean sortutako antzezlanaren bidez. Uta Hagenek esaten zuen, tomate eder bat nekazaritza ekologikoaren bidez landatu eta hazteko behar den lana, zaintza eta denbora bera, sartu beharko lukeela aktore batek papera ondo prestatzeko. Baina larregitan ikusi izan ditut, antzerkigintza, memorizatu, ozenki hitz egin eta ikusleei bizkarra ez ematera mugatzen duten irakasleak; zuzendaritza zuzenketa bihurtuz, sormena, irudimena, askatasuna eta, kaltegarriagoa oraindik, gozamina ere erabat baztertuz.

Beste batzuk aldiz, ikasleekin (ume zein heldu) nekazaritza ekologikoa egiten saiatzen gara, nik ikasle/aktoreak pertsona inteligenteak bezala tratatzen ditut eta nire helburua da ikasleek, prozesuan lehenengo eta taula gainean gero, disfrutatzea. Euren batera hutsetik abiatzen dudana sortze prozesu berri bakoitzean, aktoreen zuzendaritza eta sorkuntza uztartzen ditut, aktoreengan sormena bultzatuz, eta euren sormenaz baliatuz ere, biltzen dudana interpretazio mota lortzen saiatzeko asmoz. Aktore lana interprete hutsa izatetik haratago doan sorkuntza artistikoa dela sinesten dudalako.

Eta aurreko ostiralean Kurtzion, sei tomate bikain taularatu zirela uste dut benetan, jateko unerik onenean, ez gordinegi ezta larregi entseatzegatik freskotasuna galduta ere, taula gainean gozamen ederra hartu zuten sei tomate heldu eta zaporez beteak: Izaro, Jon, Lizar, Maitane, Nerea eta Oier, mila esker neuregan ezarritako konfiantzagarri eta zuen konpromiso, lan, irudimen, umore, sentsibiltate, sormen, zintzotasun, gogo eta izaeragarriak. ◀

Aste akabuan ekitaldiz lepo egongo da Barrika



San Juan sua ekainaren 23an isiotu arren, hamar egun lehenago hasiko dira ospakizunak. NINBE LANDA

San Juan jaiak hasi bitartean, ibilaldi herrikoiak, pintxo-poteo herrikoia, aire zabaleko margo lehiaketa gazteentzat, eta argazkilaritza-rally digitala egingo dituzte.

Barrikako San Juan jaiak ekainaren 19an hasiko badira ere, aste akabu honetan ekitaldirik ez da faltako herrian. Zapatuan, hilak 13, ibilbide herrikoiak egingo dituzte, 09:30ean (13 kilometro) eta 11:00etan (3,5 kilometro), Golfo Norte tabernako aparkalekutik abiatuta. Egunean bertan ere izena eman

daiteke aipatutako lekuan, 08:00etatik aurrera. Ibilaldiaren ostean, 12:00etan, pintxo-poteo herrikoia egingo dute.

Egun berean, Barrikako paisaiarik ederrenak irudikatzeko aukera edukiko dute 17 urtera arteko margolari gazteek. Lehiaketa 12:00etatik 14:00etara egingo dute, Iparralde tabernako apartakalekuan. Hainbat kategoria egongo

dira, adinaren arabekoak, eta kategoria bakoitzeko, hiruna sari.

Domekan, argazki-rallyan ibiliko dira hilaren 10a baino lehen izena eman zuten lehenengo 50 lagunak. Goizeko 10:00etan hasita, 45 minuturik 45 minutura gai bat iragarriko die antolakuntzak. Parte-hartzaileek lau argazki aukeratu (gai bakoitzeko, bat), eta laurak memoria-txartel batean aurkeztu beharko dituzte, 13:45ak baino lehen, frontoian. Ekainaren 21ean banatuko dituzte lehiaketaren sariak. ◀

info+: www.barrika.net

Getxoko edo Plentziako alkate izan gura duzu?

Alianzo enpresak *Euskal Quiz* izeneko aplikazioa kaleratu du, sakelako telefonoetarako. Jolasaren helburua Euskal Herriko udalerrien kultura, gastronomia, historia eta kirolaren gaineko galderak zuzen erantzutea da; gehienak asmatuz gero, alkate birtuala bihurtzeko. Aplikazioa Google zein Apple plataformentzat dago garatuta. Daborduko aplikazioak Bizkai, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko 40 udalerriri jasotzen ditu, Getxo eta Plentzia tartean, eta 600 galdera baino gehiago ditu udalerriri horiei buruz. Jolasaren dinamika oso erraza da: jokalarik bakoitzak udalerriri bat aukeratu du, eta zoriz azaltzen diren

10 galderak erantzuten ditu. Helburua udalerririk galderak zuzen erantzutea da, eta horrela, bertako alkate birtuala bihurtzea. Modu horretan, jokalaria alkatetzat birtualak bereganatzen joango da, lurraldeko diputatu nagusia bihurtu arte, 5 udalerriri «konkistatu» ondoren. Lehendakari birtualaren titulua irabaztea izango dute azken jomuga jokalariek.

Jolasaren helburu nagusia euskararen ezagutza bultzatzea da, eta gazteen artean udalerrien gaineko jakintza handitzea, Alianzo enpresako iturriek azaldu dutenez. Hala izanda, *app*-ak Bizkaiko Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesas jaso du. ◀

Euskal Herriari buruzko ikerketa Oxfordeko Unibertsitatean egiteko aukera, beka bidez

Oxford Unibertsitateko (Ingalaterra) *Saint Anthony's College* delakoak zabalik du 2015-2016 urteko *Basque Fellowship* ikerkuntza-bekarako eskabideak aurkezteko epea, ekainaren 21era arte. Doktoretza eta ingelesezko maila ona eduki behar dituzte beka hori eskatu gura duten ikerlariak. Hala, *Basque Visiting Fellow* irakasle gonbidatuak, era berean, Euskal Herriarekin zerikusia duen gai bat ikertu beharko du Oxfordeko egonaldian. Gainera, modu aktiboan parte hartuko du *Saint Anthony's*-eko eta bertako *European Studies Centre* guneko bitzita akademikoan. ◀

info+: sarah.moran@sant.ox.ac.uk

«Ahalegin handia egiten gabiltza entzule gazteengana heltzeko»

Miguel Ituarte Zarraga

pianista getxotarrari gorazarre egingo dio Bilboko Orkestrak.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Madrilen bizi da aspalditik Miguel Ituarte Zarraga (Getxo, 1968) piano-jotzaile ezaguna. Hala ere, sarri hurreratzen da Donostiara, Musikene zentroan eskolak ematen ditu-eta. Aurten, Bilboko Orkestra Sinfonikoak (BOS) omenaldia egingo dio, *Labeldun pianoa* zikloaren barruan. Datorren urteko otsailaren 18an eta 19an eskainiko ditu saioak, Bilboko orkestragaz.

Pozik egongo zara BOSeK egingo dizun omenaldiagaz, ezta?

Bilboko Orkestra Sinfonikoagaz kontzertua emateko aukera edukitzea beti atsegina izaten da; aukera bikaina da eurakaz musikan jardun ahal izatea. Gainera, oraingo honetan, nire errepertorioaren barruan berria den obra bat interpretatuko dugu. Liluratuta nago emanaldiagaz!

Euskal Herriko beste hiru pianista ezagunei ere egingo diete gorazarre. Ohorea izango da zuretzat eurakaz ziklo berean jo ahal izatea...

Hala da. Egun ezberdinetan bada ere, Joaquín Achúcarrok (Bilbo, 1932), Marta Zabaletak (Legazpi, 1965) eta Judit Jauregui (Donostia, 1985) ere joko dute, *Labeldun pianoa* zikloaren barruan. Baina, aipatutakoa ez da izango niretzat ohore bakarra: ederra baita, beti, musika maite duten entzuleen belarriak gozatzea Bilboko Orkestra



Musikene EAEko Goi Mailako Musika Ikastegian piano-eskolak ematen ditu Miguel Ituertek.

Sinfonikoa bezalako talde trebe batezagaz. Gainera, zaleek ondo dakite musikariok ilusio eta ahalegin beragaz lantzen ditugula eskuartean ditugun pieza denak.

Zer duzu gogokoen: etxeokoen egingandako gorazarrea edo nazioarteko txapelketetan jaso duzun sari mordo?

Den-denak eskertzen ditut; Espainia egindako nazioarteko txapelketetan irabazi ditudan sariak asko dira... Hala ere, egunez egun egiten dugun lana da garrantzitsua: ikusle gazteengana hurbiltzeko ahalegina, alegia.

Jende gaztea piano-kontzertu batera erakartzea ez da erraza izango...

Marta Zabaleta eta biok ez bezala, belaunaldi oso ezberdinetakoak dira lehen aipatu ditugun Joaquín Achúcarro eta Judit Jauregui; bata nagusia,

bestea gaztea; alde handia dago bien artean, urte asko. Hala ere, denok izan ditugu faltan entzule gazteagoak gure emanaldietan. Neska-mutilak musika klasikoaren mundura hurbilazteko

“Pedagogia-lana egin beharrekoa da, entzule berriak gura baditugu”

lan handia egin da azken urteotan, eta ez daukagu amore emateko asmorik.

Jotzera mugatu beharko luke bere burua musikariak, ala...

Ez. Kontzertu batean, musika eskaintzea baino askoz gehiago egiteko kapazak izan behar dugu: piezak entzuleei aurkeztu, konposizioen nondik

norakoak azaldu... Entzuleek musika hurbilago sentitu behar dute. Eskaintzen ditudan piano-emanaldietan, beti ahalegindu naiz lan hori egiten; Borja Pujol BOSeko zuzendariak eta biok aukera hori badagoela komentatu dugu, eta nik ez dut baztertzen.

Hala ere, hurrengo otsailera arte itxaron beharko dugu zu Bilbon zuzenean entzuteko.

Egia da. Otsailean eskainiko ditut emanaldiak, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin. Ostera, oraindino guttiz zehaztuta ez dagoen arren, seguru asko, abuztuan, Lekeitioko basilikan kontzertu bat emango dut; xumeagoa izango da... Bien bitartean, nire emazte Cecilia Lavilla Berganza sopranoagaz lanean jarraituko dut; Donostiako Musikene zentroan ematen ditudan eskolak ahaztu barik, noski. ◀

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota: 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota: 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

Bazkide Erabiltzailea

Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

Urtean 35€ Urtean _____ €

Izena NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea Telefonoa

E-posta

Kontu korrante zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak libxategi automatikoki batean sartuko dira, erabiltzailearen harremanetan jaritzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikazioa helarazteko. HIRUKAren erabiltzailearen aurkako datuak ez dira bereziki erabiltzen. Erabiltzaileak bere datuak ez erabiltzeko edo kentzeko bere esabirik bere dituzte. HIRUKAren informazioa: hiruka@hiruka.eus

«Oraindik ere, jendeak ez daki zer den feminista izatea»

Lorena Cabnal guatemaltarrak berbaldi bi eskaini zituen, Algortan eta Donostian, joan den ekainaren 3an eta 4an, hurrenez hurren. Hitzaldi horietan, feminismo komunitarioaren ikuspegiaren nondik norakoak azaldu zituen. *Alianza Política Sector de Mujeres* izeneko taldeko kidea da Cabnal.



IKER RINCON MORENO

Zelan ulertzen duzu zuk feminismoa?

Ez dut uste feminismo bakarra dagoenik. Pluraltasun feminista bat dagoela uste dut. Pluraltasun horretatik, emakume indigenen proposamen epistemologikoa dago: Guatemalako feminismo komunitarioa; eta harremanak ditu beste hainbat feminismo gaz. Horren harira, Guatemalako ipar-ekialdeko mendietako emakume indigenok proposamen epistemologiko bat egin genuen, emakume indigenen jakintzak batuz eta eraikiz. Feminismo horrek, alde batetik, mendebaldeko feminismoetatik elikatutako elementu politikoa du; uste dut feminismoa ez dela sortzen oso era naturalean herri indigenetan. Beste alde batetik, gure feminismoak barnebildu egiten ditu emakume indigenek interpretatzen duten jatorrizko mundu-ikuskeraren elementuak. Hala, feminismo komunitarioa proposamen epistemikoa da, gorputzen eta lurraldeen kontrako opresioei aurre egiteko; halaber, feminismo horrek ekarpena egiten die emakume indigenen emantzipazio-forma pluralei.

Zertan dago gaur egun Guatemalako feminismoa?

Aspalditik dago mugimendu interesgarri bat, Bake-akordioak sinatu baino lehenagotik; eta 20 urte igaro dira, akordioak sinatu zirenetik. Hala ere, ezin dugu esan Guatemalan mugimendu feminista bat existitzen denik, Guatemalan dagoena da emakume eta feministen mugimendu bateratu bat. Horri esker, prozesu garrantzitsuak lortu dira. Bake-akordioetarako negoziazioetan emakume feminista indartsuak

egon dira, eta, egindako lan horri esker, uste dut guatemalar emakumeen aldeko akordio zehatzak lortu direla, besteak beste: erakunde, instantzia, politika eta lege berriak sortu dira, emakumeen egoera hobetze aldera.

Pentsatzen dut eremu ezberdinetan lan egiten dugun emakume feministok indartzen ari garela mu-

“ Biolentzia matxistaren kontrako eskaerak egiten diren bitartean, arazoak hor jarraitzen duela erakusten du ”

gimendu feminista bat sortzeko aukerak. Gaur egun mugimendu plurala da; korrante feminista ezberdinetako emakumeak biltzen ditu, feminista komunitarioak batera. Eta gaur egun, antolatuta dauden hainbat eremutan lan egiten dugu; tartean, Biltzar Nazional Feministan edo Aliantza Feministan.

Aurretik Euskal Herrian egon zara, zelan ikusten duzu hemengo emakumeen egoera?

Uste dut opresioaren elementu komunak ditugula. Euskal Herriko «femizidioaren» indizeak ezin dira konparatu Guatemalakoak; hala ere, hemen

ere emakumeak hiltzen dituzte. Esan beharra dago biolentzia matxistaren adierazleak ezberdinak direla han eta hemen, baina Euskal Herria ez dago matxistotik libre. Berdintasunerako politika publikoek ez dute emakumeen arazo historiko eta estrukturala konpontzen; uste dut erreminta baliagarria dela, eta uste dut borroka feministak ere egon direla hor. Hala ere, gizartearen imaginarioak uste du feministak zaharkituta daudela. Emakumeen aldeko gauza asko lortu dira hemen; hortaz, jendeak uste du matxismoa herri txiroetako kontua dela. Hala ere, biolentzia matxistaren kontrako eskaerak egiten diren bitartean, arazoak hor jarraitzen duela erakusten du. Beraz, testuinguru ezberdinetan agertzen dira biolentziak, baina hemen, oraindik ere, emakume feministek lan handia egin behar dutela uste dut.

Gizartea feminismitik aldentzen ari dela uste duzu?

Hemen ere Guatemalan entzuten ditudan hitzak entzun izan ditut, eta feministak estigmatizatzeagaz lotuta daude. Nahiz eta hemen emakume feminista ugariren lana garrantzitsua izan den, oraindik ere jendeak ez daki zer den feminista izatea, ezta zer egiten dugun ere. Gizartea aurreiritziz josita dago. Jendeak gure proposamenen inguruan gehiago irakurri beharko luke.

Zeintzuk dira Alianza Política Sector de Mujeres mugimenduaren proposamenak?

Gu 2004an hasi ginen aliantza horretako partaide



izaten. Bake-akordioak sinatu baino lehen jaio zen emakumeen sektore hori; hala ere, garai haietan indartu, eta Gobernuaren eta Guatemalako Unitate Iraultzaile Nazionalaren arteko negoziazioetan parte hartu zuen. Gu sartu ginenean, pentsamendu eta formakuntza politikoa indartzea zen garrantzitsuena. Ondoren, 2007an, aliantzak bere burua definitu zuen ezkerreko emakume eta feministen koordinakunde gisa. Hori horrela, eztabaidatu genuen mendietako emakumeok aliantza horren barneko politika feministaren identitatea noraino barnerrazten genuen. Hala, 2008an, identitate hori indartzen hasi ginen, baita gure autonomiatik ere. Gaur egun aliantzarekiko harremana lurralde-lana egitea da. Subjektu politiko feminista indartzen jarraitu behar dugu, aliantza hori osatzen dugun emakumeok pluraltasun feminista bat dakargulako. Guatemalan emakume bat izatearen imaginarioa aldatzea izan da aliantzaren apustuetako bat hainbat urtez, eta uste dut, imaginario hori aldatzeko, molde patriarkal, kolonialista eta kapitalisten kontra borrokatu beharra dagoela. Bestalde, ez nuke aipatu barik utzi gura, feminista komunitariook aliantzaren barruan ehuntzen hasi garen elementuetako bat hau izan dela: lurrraren eta gorputzaren lurraldearen babesaren eta berreskurapenaren planteamendua.

Zer esan gura duzu lurra eta gorputzaren lurraldea babestu beharrekoak direla diozunean?

Gure ustean, opresio guztien aurrean babestu beha-

rreko lehenengo lurralde sinbolikoa da gorputza. 2005ean biolentzia sexualaren kontrako borroka bortitza egin genuen; hori da gorputz-lurraldea defendatzea. Urteak aurrera joan ahala, 2007an gure lurraldea defendatzeko borrokakaz hasi ginen, gure inguruetan meatzaritzarako 32 lizentzia onartuta zeuden-eta; beraz, lurra eta lurraldea defenditzen

“ Ezinezkoa da emantzipatutako gorputz libre eta zoriontsu bategaz bizitzea lurralde kutsatu batean ”

hasi ginen. Hala ere, ohartu ginen ezinezkoa zela lurrraren defentsa bultzatzea eta gorputzaren defentsa alde batera uztea. Inkoherentzia politikoa da lurra defendatzea, eta lur horretan eta horretatik bizi diren emakumeen gorputzak ez defendatzea. Hortaz, lurra eta gorputzaren lurraldea defendatzeaz berba egiten dugunean, horixe da: egunerokoan emakumeok bizi ditugun biolentzia guztien aurrean defendatzea. Berdin du nongoa zaren, sistema patriarkalaren kontra egiteko borroka egunerokoa da edonon. Ezinezkoa da emantzipatutako gorputz libre eta zoriontsu bategaz bizitzea, lurralde kutsatu batean.

Gurera bueltatuz, apurka-apurka mugimendu feminista berriak sortzen hasi dira Euskal Herrian, auzoz auzokoak direnak...

Mugimendu pluralak diren bitartean, uste dut indartsuak izan daitezkeela, egunerokoa etxean, komunitatean eta auzoan bizi delako. Uste dut garrantzitsuak ere badirela emakume feministek bestelako testuinguru akademikoetan egindako hausnarketak. Hala ere, borrokaren bizitzatza eta emantzipazio pluraltzat hartzen dugunean bizitzea, horrek energia handiagoa emango digu elkarregaz ibiltzeko.

Halaber, eguneroko komunitate-erresistentziarako moldeak sortzen direnean, prozesuei bidea emango diete. Nik ahalmen handi horretan sinesten dut, horizontaltasunerako bideak sortzeko gonbiteak luzatzen dituztelako.

Gobernuak zer-zelako esku-hartzea izan beharko luke horretan guztian? Izan beharko balu...

Emakume eta feministen prozesuak autonomoak badira, ez dut uste gobernuak ezelako esku-hartzerik izan beharko luketenik prozesu horietan, printzipioz. Berbarako, talde batzuek gobernatzeko sistema organizatuen kontrako borroka bortitzak aurrera eroan dituzte, sistema horiek emakumeen gorputzen gaineko botere hegemoniko bihurtzen direlako. Edozelan ere, feministek sistema organizatuen gainean egin ditugun hausnarketa eta proposamen batzuk entzun ditzaketela gobernu osatzen duten emakume zein gizonen; hala, haiek euren pentsamenduak freskatu, eta emakume feministon interpelazioak entzun ahal izango lituzkete. Hala ere, uste dut, alde batetik, badaudela moduak, feminismoen hausnarketa sakonak instituzionalizatzen dituztenak. Beste alde batetik, badaude bestelako modu neoliberalagoak, feminismo horiek instituzioetara eramateko. Hori guztia korapilatsua da, modu horretan kategoriak eta kontzeptuak hartuko lituzketelako baka-riik interpretazioak, lan-planak, proiektuak eta programak egiteko. Bada, unean uneko generoaren inklusioagaz zerikusia duen eskari bat konpontzeko, guztiz eztabaidagarria da feminismitik datozen planteamenduen eta hausnarketan instituzionalizazio neoliberalak egitea, eta hausnartzen jarraitu behar dugu. Hala ere, uste dut gobernuaren erantzukizuna dela emakumeen kontrako indarkeriaren gaia. Hortaz, nik uste dut garrantzitsua dela biolentzia matxista desagerrarazteko proposamen eta interpretazio desberdinak ezagutzea.

Hainbat talde feminista emakumeen etxeak aldarrikatzen dabilta gaur egun. Zer iruditzen zaizkizu horrelako proiektuak?

Emakumeok justiziarako irismena eskatzen badugu, nik uste dut erantzukizun politikoa, soziala eta ekonomikoa dagoela emakumeen bizia babesteko. Hori edozein herritako konstituzioan aginduta dago. Hori dela-eta, emakumeen biziaren babes ez da bakarrik gizakiaren eskubidea; hortik harago doa: Estatuek duten mandatua da. Zentzu horretan, uste dut harre-
ra-etxe horiek, Guatemalan bezala, izan beharko luketela biolentzia pairatu duten emakumeak integralki laguntzeko zentroak. Nik uste dut mundu osoan eskatzen diren proiektuak direla horiek. Guatemalan oraindik ere eskatzen jarraitzen dugu, eta Guatemalan bezala, beste hainbat herrialdetan ere, emakumeek beharrezkotzat jotzen dute euren bizia babesteko guneak. ◀

Rakel Mateo atletaren alde, igeriketan

Rakel Mateo Uriarte paratriatleta mungiarrek 2016ko Paralinpiar Jokoetan parte hartzea izan dezan elkartasun itsasaldia antolatu dute domekarako, Bolatik Arriluzera.

Datorren domekan, ekainak 14, elkartasun-itsasaldia egingo dute Areetako kostaldean, igerian. Proba 12:00etan abiatuko da Bolako hondartzatik, eta Arriluzeko Gurutze Gorriaren eraikinaren ondoan amaitu. Helduek kilometro bat egingo dute, eta umeez, 350 metroko tarte. Izena ematean, 10 euro ordaindu beharko dituzte 14 urtetik gorakoek. Itsasaldia abiatu arte aukera egongo da inskripzioak egiteko.

Elkartasun-ekimen horretan batuko den diru dena Rakel Mateo Uriarte paratriatletarentzat izango da. Ma-

teo Espainiako aurtengo paratriatloi txapelduna da, eta iaz Munduko paraduatloi txapela jantzi zuen. Bere asmoa da nazioarteko hainbat probatan parte hartu eta 2016an Rio de Janeiroko Paralinpiar Jokoetan sailkatzea. Itsasaldia kirolariaren teknikari-taldeak antolatu du, Getxo Kirolak erakundearen laguntzagaz.

Kirol eskarmentua

Rakel Mateok orain bost urte ekin zion kirolari, 2001ean izandako lan-istripuaren ostean. Izan ere, 2010ean igo zen estreinako aldiz bizikletara, den-



Saiatu fundazioaren taldean lehiatzen da Mateo. © CEU


bora luze baten ostean. Bizikletan hainbat moldaketa egin zituen, ezkerreko hankan duen urritasunera egokitzeko. 2011tik aurrera hasi zen errepide gaineko lasterketetan, eta handik aurrera, «diziplina, konstantzia eta konpromiso handiari esker, urte hartan bertan heldu nintzen Espainiako txirrindularitza egokituaren gailurrera», Mateok azaldu duenez. Paratxirrindularitzaren elitean jarraitzen badu ere, erronka berriak hartu ditu. Horrela, 2014an ekin zion paraduatloiarri, eta hilabete batzuen buruan, munduko txapelduna izatea lortu zuen. Helbu-

ru berria jarri zion orduan bere buruari: paratriatloia. Kirol hori Paralinpiar Jokoetan lehenengo aldiz jokatu da datorren urtean, Brasilgo Rio de Janeiro. Proban, 750 metro igeriketan, 20 kilometro bizikletan, eta 5 kilometro korrika egin beharko ditu Mateok. Paralinpiar Jokoetan parte hartzeko, «dedikazio eta prestaketa fisiko zein mental handia egin beharra dago, hainbat lehiaketa puntuagarritan parte hartzeagaz batera: Espainia, Europa, eta Munduko txapelketak», dioenez. Denboraldia osatzeko 30.000 euro behar ditu Mateok. ◀

Gorlizen boulderrari ekingo diote zapatuan

Zapatu honetan, hilak 13, Boulder Txapelketa Herrikoia egingo dute Gorlizko udal kiroldegian, auzolanean eraikitako boulderrean. Eskalada-zale batzuek antolatutako ekintza horregaz gozatu ahal izango dute interesatuek 10:30etik 14:30era, katu-oinak jantzita. Horretarako, goizeko 10:00etatik aurrera izena eta bi euroko inskripzio sinbolikoa besterik ez dute eman beharko. Izan ere, Udalak ekimena babestu ez duenez, karteletan eta sarietan inbertitutako dirua berreskuratzeko erabiliko dute dirutxo hori.

Antolatzaileen ustez horrelako «txapelketa txiki bat beti da motibagarria eskaladan hasi eta bultzatzeko. Boulder ez da natura gehien bultzatzen duen eskalada mota, baina eskalada berez ezagutarazteak mendira eta harrietara eramaten zaitu, eta horrek bai, naturagaz harremana dauka. Kirol sanoagoa izan daiteke, ez da beste



Gorlizen eskalada-zaletasun handia dago.

batzuk bezain hiritarra. Berez boulderra da eskaladaren parterik itsusiena, baina berrientzat errazena, eta txapelketa antolatzean, pixka bat dibertigarriagoa egin gura izan dugu».

Eskalada ikastaroa

Egun berean, Gorlizko Troka Abentura enpresak hasierako eskalada ikastaroa emango du: segurtasun-neurriak, materialak, segurtatze-teknikak, eskalatzeko teknikak, eta abar. ◀

info+: 946 774 265 / troka@troka.com

Kickboxing gaua hartuko du Urdulizek

Zapatuan, hilak 13, boxeo eta kickboxing ekitaldia izango da Urdulizko Iparralde kiroldegian, Basakick taldeak antolatuta. Bertako ringak 22 borrokalari jasoko ditu, 20:00etatik aurrera egingo diren 11 borrokaldietan. Hasteko, bost kickboxing-bikote amateurren lehiak izango dira ikusgai, Youssef Hamyd Basakickeko kidea tartean. Ondoren, boxeo olimpiakoko demak izango dira.

Boxeo izarrak

Lehenengoan, 52,5 kiloko pisuagaz, Basakickeko Eneritz Borinaga plentziarra ahaleginduko da «Nany» Suarez asturiarra menderatzen. Suarez birritan izan da Espainiako txapeldun. Hortaz, Borinagak «erronka itzela» izango duela aurreikusitako dute. Plentziakoa, 27 urteagaz, EAEko txapeldun izan zen 2013an, luma-pisuan, besteak beste. Pasa den maiatzean, berri, brontzea lortu zuen Espainiako



Eneritz Borinaga. © GALDER IZAGIRRE - GAZTEZULO

txapelketetan, oilar-pisuan. Beste hiru konbatetan, oster, aipagarriak dira aurtengo EAEko txapeldunak: Ibon Larrinaga itzubaltzetarra, pisu arianean; Espainiako hirugarrena ere izan da. Diego Valtierra getxoztarraren aurka lehiatuko da. David Barros, pisu astunean. Eta Guillermo Rivero algortarra, pisu erdiastunean. Amaitzeko, K1 konbate neoprofesional bi izango dira. Bertan, borroka zaila izango du Espainiako k1 amateur txapela jantzi berri duen Mikel Sortino getxoztarrak. ◀

Bizkerre, Euskal Kopa eskura



Athletic 0-7 nagusitu zitzaion Bizkerreri, Emakumezkoen Getxoko IX. Futbol Txapelketan. © ATHLETIC

Datorren zapatuan, ekainak 13, Euskal Koparen finalerdietatik finalera jauzia ematea ala ez jokatu du Bizkerrek. Lezamako bigarren futbol-zelaian egingo da neurketa, 18:30ean. Ez da erraza izango, baina ezta ezinezkoa ere. Horrela erakusten du pasa den astelehenean Athletic Bren aurka izandako norgehiagokak: arerio handiak 1-3 irabazi zion Bizkerreri Boluen. Garaipen sendoa lortu zuten lehoi zurigorriek, baina ez gaindiezina. Leire Vivas aurrelari urduliztarrak estreinatu zuen markagailua 25. minutuan, baina lehenengo zatia amaitzear zegoela, heldu zen Leia Zarateren gola Athleticentzat.

Bigarren zatian, zuri-urdinak ez ziren gai izan defentsari eusteko, eta Sheila Elorzak eta berriz ere Zaratek gol banaz zigortu zuten Bizkerreko atezaina. Bueltan, gutxienez lau tanto sartuz irabazi beharko dute getxoztarrek.

Getxoko Txapelketa

Bartzelonak irabazi zuen aste-akabuan jokatu zen Emakumezkoen Getxoko IX. Futbol Txapelketa. Finalean, Printzerrikoek 1-0 irabazi zioten Valentziari; Naiara Beristain Valentziako jokalaririk getxoztarrak ez zuen jokaterik izan, lesioagatik. Athletic Ak lortu zuen hirugarren postua, Bizkerreri gol andana sartuta: 0-7. ◀

Arenas Badajozera doa, azken play-offen bila

Bigarren B Mailara igotzeko eskaileraren erdian dago gaur egun Arenas futbol-taldea. Luzamenduan irabazi zuten lehenengo fasea. Bigarren play-offen joaneko partidari eta Gobelako zaleen babesari, berriz, ez zien atera ahal zitekeen zuku guttia. Halere, 0-0 berdinketa ez zen txarra izan, Extremadurako aurrelari ezin izan baitzuten garrantzi berezia duen kanpoko golik sartu. Gauzak horrela, domekan erabakiko da Arenas hirugarren eta azken fasea jokatu dituen. Hitzordua 18:00etan da, Badajozko Almendralejo herriko Francisco de

la Hera futbol-zelaian. Klub gaztea da Extremadura Union Deportiva taldea, 2007an sortua. Urdin-gorriek gertutik ezagutu zuten Extremadura klub historikoaren eklipsea, futbol-zelaia partekatu baitzuten. Extremadura 1924an eratu, eta urteetan Lehenengo Mailan jokatu arren, 2010ean desegin zen.

Getxo, Elgorriagaren aurka

Bere aldetik, Getxo Futbol Taldeak zapatuan hartuko du Gasteizko Elgorriaga kluba. Hitzordua Faduran izango da, 18:00etan. Hirugarren Mailara igotzeko promozioa dute jokoan. ◀

Romoko kadeteek Euskal Kopa irabazi berri dute

Itzubaltzeta / Romoko futbol-taldeko kadeteek denboraldi aparta itxi zuten zapatuan, Maionako futbol-zelaian Santutxu 1-2 garaitu eta Euskal Kopa eskuratuta. Itzubaltzetarrek birritan aurreratu ziren markagailuan lehenengo zatian, eta eusten eman zituzten azken 45 minutuak. Gainera, Euskal Ligan bosgarren sailkatu ziren, eta Athleticen ostean geratu ziren beste kadete kopan. Gazte Mailako Euskal Kopan, berriz, Arenas finalerdian da, eta Barakaldon 1-1 berdindu ostean, buelta Gobelan jokatu du domekan 11:30ean. ◀

Athletic Eguna egingo dute Astrabuduan

Seigarrenez, Athletic Eguna antolatuko du Athletic Goitiko Taldeak zapatuan, Astrabuduko Mendiguren plazan. Antolakuntzan, Trabuduren eta Gautxorien laguntza izango dute. Andoni Iraolari gorazarre egin asmo dion jardunaldian, 11:00etatik aurrera adin denentzako ekimenak izango dira: puzgarriak, txosna, txalaparta tailerra, erraldoien kalejira, trikiti eta alboka poteoa, helduen giza-futbola, herri-paella (txartelak salgai Primera Linea eta Beltzez tabernetan, 7 eurotan), «Aupa Athletic Karajo» mahai-ingurua, eta txorizo-jana. ◀

Renault ESPACE berria

Zure denbora zurea da

Gidatzean, gozatu arintasunaz eta segurtasunaz lau gurpil gidariko 4Control sistemarekin.

Renault Espace berria gama: kontsumo mistoa (l/100km) 4,4tik 6,2ra bitartean. CO₂-aren isuria (g/km), 116tik 140ra bitartean.

Renault gozatuaren eif

Renault.es

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA www.renault.es/concesion/leioaberri

Lointek onena izan da Sopelan



Eider Merinok Bizkaiko txapelketa irabazi zuen Sopelan. © LOINTEK TEAM

Pasa den zapatuan, Sopelako Udalaren XXXI. Saria jokatu zen eskualdean. Etxeko Lointek Team-ek eroan zuen txirrindularitza-talderik nagusiaren saria. Norbanakoen sailkapenetan, Leire Olaberriak (Donosti Berri) irabazi zuen Elite Mailako proba, lasterketaren 79,6 kilometroak 2.14.33 denboran osatuta. Mavi Garcia (Bizkaia-Durango) hiru segundo eskasera heldu zen, eta Lointekeko Sheyla Gutierrez podiumera igo zen, Olaberriak hamaika segundo atara zizkion arren.

Eider Merino Lointekeko balmasedarrak Bizkaiko txapela bururatu zuen, seigarren sartuta. Gazteen artean, Sopela-Ugeragako Rocio del

Alba Garcia nagusitu zen; eta kade-teetan, Nekane Gomez (Caja Rural). Euskaldun Sarirako puntuagarria zen proba, baina emaitzek ez dute asko aldatu sailkapenaren burua. Gauzak horrela, lehenengo postuan jarraitzen dute Gloria Rodriguezek (BZK Emakumeen Bira) eta Lourdes Oyarbidek (Bizkaia-Durango), elite eta 23 urte azpiko kategorietan.

Durango-Durango

Sopelako garaipenaz gainera, beste sari bat irabazi berri du Eider Merinok: Euskal txirrindularirik onena izan zen Durango-Durango Emakumeen Sarian; helmugara 26. postuan heldu arren. ◀

Hamasei udako campus eskaintzen dituzte Getxoko kirol-taldeek

Getxoko hainbat kirol klubek 16 kirol-campus eskaintzen dituzte udarako, Getxo Kirolak udal erakundeagaz batera. Neska-mutilek aukera izango dute honako modalitateetan jarduteko: gimnasia erritmikoa, errugbia, eskubaloia, saskibaloia, igeriketa, tenisa, futbola, irristaketa, skatea, surfa, bela eta boleibola. Kasu bakoitzean ezberdinak dira datak, ordutegiak, diru-kopuruak eta adinak.

Era berean, uztailean Getxok hiru teknifikazio-campus hartuko dituelakoan dago Getxo Kirolak erakundeak. Izan ere, saskibaloiko eta gimnasia erritmikoko federazioek eta waterpoloko WP Camp enpresak bertan egin gura dituzte euren ekimenak. Maila ertaina edo aurreratua duten kirolariei zuzenduta daude teknifikazio-campus horiek. ◀

Gimnasia erritmikoa / irristaketa

685 545 032 / 664 570 994

Skatea

skateskola21@gmail.com / 649 932 284

Saskibaloia / eskubaloia

657 773 523 / 691 432 353

Igeriketa eta kirol anitza

getxoibke@gmail.com / 663 871 318

Tenisa eta kirol anitza

685 751 688 / 609 400 742

Futbola eta kirol anitza

605 748 715 / 618 349 915 / 657 268 606 / 664 570 994 / 655 108 247

Boleibola

campus-voleigetxo@gmail.com / 654 738 779

Surfa / bela

946 764 859 / 944 916 632

Errugbia eta kirol anitza

getxorugby@getxorugby.org / 688 874 714



Gazteek hamaika kirol-ekimen izango dute aukeran. © LEIOAKO UDALA

Leioako kirol eta aisialdi udalekuak prest dituzte

Aterpe Leioa Gazteguneak udaleku irekietarako izen-ematea itxiko du barikuan, ekainak 12. Leioan erroldatutako 14 eta 17 urte bitarteko neska-mutilei daude zuzenduta udalekuak, eta ekainaren 29tik uztailearen 10era egingo dituzte, euskaraz. Gazteek makina bat aisialdi eta kirol jardueraz gozatu ahal izango dute bertan. 40 izen-emate baino gehiago

egotekotan, lekuak zozkatu egingo lirateke; zozketa martitzenean, ekainak 16, egingo litzateke. Matrikula ordaindu eta ordainagiria ekainaren 16ra bitartean Aterpe Leioa Gaztegunean entregatu ezean, gordetako lekua galduko da. Prezioa 40 eurokoa da, Kultur Leioako Lagun gazteentzat, eta 65 eurokoa, gainerako leioaztarrentzat. ◀

info+: 944 05 850 / gazte@leioa.net

REBEL TATTOO
Basagoiti 73, 48991 ALGORTA
TF. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

I
Iñaki Bitxitegia
MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebxe 1 Tf. 94 460 27 41
Algorta


GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA
Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

aldai
TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK
Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpi-lauki bakoitzean.



		1		3				8
			7					
	6			4			5	1
		9		5		1	4	
					2		7	
2			4			3		5
6			2					
	3			7		9		
	8						1	7

		8					4	
			5			9		2
					7		3	
	5				6			
3	8		4		5			6
9						1	2	
		5	9					8
		4	6		8			

			8					
3							1	
			6			4		7
				6			4	
		5	2					
	1	4				2	9	
		7						
	2		9	1		7	5	
6			5					1

Soluzioak

1	2	3	7	4	5	6	8	9
8	5	7	9	1	6	3	2	4
4	9	6	8	2	3	7	5	1
6	9	2	3	5	7	4	1	8
3	7	1	4	8	2	5	9	6
5	4	8	9	6	1	2	3	7
7	8	7	4	8	2	3	9	5
1	2	9	5	6	4	8	7	3
9	3	6	1	5	8	7	4	2

7	1	5	4	9	3	2	8	6
9	2	6	5	7	8	1	3	4
4	3	8	9	1	2	7	5	6
5	8	3	7	6	4	9	1	2
6	7	9	2	8	1	5	4	3
2	4	1	3	5	6	9	7	8
1	5	2	8	4	9	3	6	7
3	6	3	1	2	7	8	5	4
8	9	7	6	3	5	1	2	4

7	6	2	8	5	9	4	3	1
8	1	4	2	3	6	5	7	9
3	5	6	1	4	7	2	8	9
5	1	2	3	7	8	6	4	9
9	6	7	5	2	4	1	8	3
4	8	3	6	9	7	1	5	2
6	3	8	7	4	2	9	1	5
4	6	3	5	8	1	9	7	2
7	2	8	9	3	6	5	4	1

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Aste honetan ez zaizu komeni apustutan edo jokoan ibiltzea, galera handiak izango baitzenituzke. Beste kontuetan zortea izango duzu.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

San Juan bezperan, ganorazko sutea egin gura baduzu, gaur da eguna egurra, kartoia eta papera metatzen hasteko!



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Gose gutxiago izango duzu datozen egunotan. Hala ere, energia ez zaizu faltako, ondo hidratatzen bazara.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Baikorra izatea erabaki duzu, eta oraingo lagungarri suertatu zaizkizu inguruko denak. Jarraitu horrela.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Uda heldu barik ere, udako planak egin daitezke. Hartu zapatilak eta motxila, eta ekin beroaz gozatzeari!



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Urteak daroatzazu parrilan okela, arrainak eta barazkiak belztu arte erretzen. Bada garaia, zuk ere Michelin izarren bat jaso dezazun.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Ikasturtea amaitzen dabil, baina, daborduko, mendea duzula ematen du. Ez despistatu azken uanean!



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Merezi duzu, eta konturatu egin dira horretaz. Orain, hitzetatik ekintzetara pasatzea baino ez dute!



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Aurrekoan ahaztu egin zitzaizun. Ez izan lotsarik, eta aitor egiozu. Azken finean, txikikeria besterik ez da izan.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Txikitako txokolatzeko pastelxoakaz oroitzen zara, ezta? Gogora ekarri, eta adurra darizu daborduko? Bilatu baten bat!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Gero eta gehiago kostatzen zaizu lo egitea, zure gorputzak ordutegia aldatzea erabaki ei duelako. Ez kezkatu eta molda zaitze.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Azkena izateak ez du esan gura garrantzi gutxienekoa izatea, baina batzuetan horrela da. Uanean uneko egoera aztertu.

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Hautetsontziak

Erabakitze-eskubidean jauzia emateko



Ekainaren 21ean hitzordu garrantzitsua ipini du Gure Esku Dago erakundeak, Euskal Herriko hiriburu nagusietan. Uribekostarrek iaz baino errazago izango dute erabakitze-eskubidea sostengatzea; Durangaldea eta Deba Goienara beharrean, San Mames Barrira jo beharko dute.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Pasa den urtean ekimen erraldoia egin zuen Gure Esku Dago erabakitze-eskubidearen aldeko herri-plataformak. 2014ko ekainaren 8an, Baltikoko herriak eta Via Catalana eredu hartuta, 150.000 pertsonak elkarri eman zioten eskua, Durango eta Iruñea lotzeko. Aurten jauzia eman gura du erakundeak. Horretarako, hautetsontzi handi batzuen bueltan egin gura dute erabakitzeko eskubidearen aldeko apustua.

Bai Euskarari legez

1998an ospatu zen bigarren Bai Euskarari ekitaldian legez, aurten ere egun historikoa osatzea eta sentiaraztea da Gure Esku Dago-ren asmoa, estadioak betez, eta erabakitzeko eskubidea aldarrikatu barik, eskubidea gauzatzeko pausoak emateko. Martxoan Bilbon egindako aurkezpenean, Zelai Nikolas

ekimenaren bozeramaile barrikoztarrak aitortu zenez, «ez gara jaio aldarrikatzeko. Aldarria bera baino gehiago, erabaki hori nola eta noiz gauzatu da gure erronka, eta horretara goaz». Angel Oiarbide eledu-

San Mames Barrian egingo den ekitaldirako sarrerak 10 eurotan eskura ditzakete helduek, eta 5 eurotan, umek

nak ere argi azaldu zuen: «guri dagokigu herritarrak batzea, aldarria ariketa bihurtzeko». Bilbon, Donostian, Gasteizen, Iruñean eta Baionan jai bana egingo dute ekainaren 21ean, «Gaurko hautetsontzia, bihar-ko erabakia» goiburupean. Eguerdian, «oihal ka-

teak» egingo dituzte hiriburuetan. Bilboko Uribitarte ibilbidean, Zubizuri eta udaletxeko zubiaren arteko tartean, batu egingo dituzte Leioan, Berangon, Algortan, Urizarren, Astrabuduan, Gorkizen, Plentzian, Areetan, Larrabasterran edota Urdulizen azken asteotan jositako oihalak, «borondateen elkartzea» eta «zubiak eraikitze» asmoa irudikatzeko. Ordu erdiko ekitaldia oso jendetsua izatea espero dute.

San Mames Barria

Euskal Herri osoan komuna izango den oihal kateen ostean, beren-beregiko egitaraua izango du hiriburu bakoitzak. Bilbon, San Mames Barria futbol-zelaia izango da ekitaldi nagusirako jokalekua: 50.000 parte-hartzaile baino gehiago izateko erronka zabaldu du Gure Esku Dago. Ehunka hiritar lanean dabil-tza Uribe Kostan eta Bizkaiko gainerako eskualdeetan jende-kopuru hori elkartzeko. Katedraleko ateak 16:30ean zabalduko dira, eta barrua «sorpasaz bererik» egingo dela iragarri dute. Ez da leku bakarra izango: Nafarroako hiriburuan, zezen-plazan egingo dute ekitaldia, eta sanferminekin alderatu dute; Gasteizen, Buesa Arena betetzea zen helburua, baina ez dute azpiegitura hori izango, eta hainbat plazatan egingo dituzte ekitaldiak; Donostian, Anoeta futbol-zelaia «borondateen eztanda» bilakatu nahi

Sarrera erosteko lekuak, eta ekimen batzuk



Areeta

Ekainaren 13an, zapatua
12:30 Sarrerak salgai, Kaian.

Ekainaren 14an, domeka
12:30 Sarrerak salgai,
Adiskidetasuna kalean.

Algorta

Ekainaren 16ra arte
Kantxa Kirolak, Tab. Berrin.
Ekainak 11, 12, 15 eta 16
18:00-20:00 Telletxen.
Ekainaren 13an eta 14an
12:00-14:00 Telletxen eta
ikastolan (zapatuan bakarrik).

Berango

Ekainaren 14an
Goizean Txakolin egunean.

Ekainaren 16ra arte
Sarrerak salgai, Txokoa
tabernan.

Erandio

Ekainaren 12an, barikua
19:30 Kalejira, Astrabuduko
Josu Murueta plazatik abiatuta.

Ekainaren 16ra arte
Sarrerak salgai, Astrabuduko
Jenaro eta Altzagako La Plaza
tabernetan.

Gorkiz

Ekainaren 16ra arte
Sarrerak salgai, Jubilatuen
tabernan eta Arai Hori
aseguru-etxean.

Ekainaren 16an, martitzena
19:00 Sarrerak salgai,
Sertutxenan.

Interneten: Gureeskudago.eus/denda (ekainaren 20ra arte)

info+: gureeskudago.eus



dute; eta Baionan errugbi-zelain izango da. Arrastiko ekitaldi denak 17:30ean hasiko dira. Horren ostean, gure kasuan, San Mamesen ateak berriro itxi eta argiak amatatzean, egitaraua ez da amaituko, Areatzan izango da jaia.

Alderdikeria barik

Gogoratu dutenez, alderdi politiko bakoitzaren «estrategia eta interesetatik harago» jokatzeko du Gure Esku Dago-k. Halere, horiek ere kontuan hartzen ditu, ekainaren 21ean «herritarren borondateak» elkartu ahal izateko. Izan ere, hilabeteak eman ditu Gure Esku Dago-k harremanak ehuntzen, eta jos-

Eguerdiko Oihal Katea bost hiriburutako zubietan egingo dute aldi berean, «borondateen elkartzeari» irudikatzen

tun-lan horiek osatuko dituzte hiriburuetan erabakitzeko-erabakitzeko praktikara eroatea sinbolizatzen duten hautetsontzi erraldoiek: «Erabaki nahi duen herri bat elkarlanean jartzea lortuz gero, bidearen erdia eginga» izango dela adierazi dute herri-ekime-

neko kideek. Iaz legez, pertsona ezagun askok parte hartu du Uribe Kostan Gure Esku Dago-k antolatutako ekimenetan, berbarako: Iñaki Zarrakoa Getxoko alkate ohia, Ana Crespo Erandioko EH Bilduren alkategaia, Laura Mintegi idazlea, Jone Aranguren pilotaria, Egoitz Laka Metro Bilbaoko Enpresa Batzordeko presidentea eta Juan Antonio Arieta-Araunabeña legebiltzarkide jeltzaleak.

Sostenguak

Halere, iaz Ahal Dugu-k egin legez, aurten hainbat eragile politikok babesak eskaini diote ekimenari. Martitzenean, EAJk eta ELAk deialdi bana egin zuten ekitaldietara joateko. Koldo Mediavilla erakundearen arteko harremanetarako EAJren EBBko arduradun algortarrak Info7 irradian egin zuen berba. Herritarrei Gure Esku Dago-k antolatutako ekimenetan parte har dezaten eskatu zien, «ez bakarrik aldarrikatzera oinarrizko eskubide bat dela, baizik eta erabakitzen eskubidea guri dagokigun eskubide demokratiko bat dela». Mediavillak ziurtatu zuen eskubide hori noiz edo noiz onartuko dela, «ez baita bakarrik nazionalisten eskubidea; guztion eskubidea da». ELAk txalotu zituen antolatutako ekimenak. Zelai Nikolasek eskertu ditu babesak, eta gogoratu du politikariek «modu pertsonalean» parte har dezaketela. ◀

Bilboko egitaraua

Ekainaren 21a, domeka

11:30 Nor bere lekura, uribekostarrak: Zubizuri eta udaletxeko zubien artean, Uribitarte ibilbidean.

12:00 Oihal Katearen hasiera.

12:30 Oihal Katearen amaiera.

Eguerdian, Jolastokia gunean, umeentzako puzgarriak eta tailerrak, eta kale animazioa.

13:00 Bertso-saioa, Jantokia gunean: Fredi Paia, Arkaitz Estiballes, Onintza Enbeita eta Etxahun Lekue. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.

13:00 Erromeria Trikiziogaz, Jai gunean.

Bazkalorduan, jateko lekua egongo da Jantokia gunean: txahal erreka, bokatak, saiheskiak, edariak...

14:30 Kontzertua Kheraugaz, Jantokia gunean.

16:30 San Mames Barriako ateen irekiera.

17:30 Ekitaldi nagusia, San Mames Barrian.

20:30 Erromeria Oxabigaz, Areatzan. Gonbidatu bereziak: Francis (Doctor Deseo), Alex Sardui (Gatibu), Ibon Altuna (Itziarren Semeak), Miren Amuriza, Mikel Martinez eta Patxo Telleria, dantzariak, magoak, eta abar, eta abar.

Itzubaltzeta/Romo

Ekainaren 11n eta 12an
20:00 Sarrerak, La Monan.

Ekainaren 12an, barikua
20:30 Aurrezki Kutxa kalean.

Ekainaren 13an eta 14an
12:30 La Mona tabernan.

Leioa

Ekainaren 11n, eguena
18:30-21:00 Sakonetan.

Ekainaren 11n eta 15ean
18:00-21:00 Sabino Arana,
65; lonja.

Ekainaren 13an, zapatua
Goizean, Ikea Barri plazan.

Lemoiz

Ekainaren 16ra arte
Sarrerak salgai, Andraka,
Amaterra eta Arrantzale
tabernetan, Batzokian eta
Pamitxa okindegian.

Plentzia

Ekainaren 16ra arte
Sarrerak salgai, La Kalan,
Batelan eta Jai Alaiko
tabernan.

Sopela

Ekainaren 13an eta 14an
12:00-14:00 Udaletxe plazan

Ekainaren 16ra arte
Sarrerak salgai, Fotos
Xabierren eta Laubide
pintura-dendan.

Urduliz

Ekainaren 16ra arte
Sarrerak salgai, Txiberri eta
herriko tabernetan, eta Harroin
fruta-dendan.



Sukaldean

San Pedro festetarako, ontzututako txitxi-burruntzia



OSAGIAK:

Txerriki ontzutu zatiak, eta limoia.

LURREN KAFE TABERNA

Ripa kalea, 1. SOPELA
Tel.: 94 404 97 66

Musika, dantza eta parranda... hilaren 26tik 29ra bitartean izango dira Sopelako sanpedroak. Festa-giroa herri osoan hedatuko da, eta hori aprobetxatuz, Ripa kaleko Lurren kafe-tabernak eskaintza berezia egingo du aste kabu horretarako. Urte osoan pintxo eta burruntzi hotzak eskaintzen ditu; hala ere, jaietara begira, plantxa hartu eta txitxi-burruntziak egingo dituzte, bezeroek tripak bete, eta parrandari modu ezin hobean aurre egin ahal izateko. Txerriki ontzutu zatiak plantxan frijitu eta pintxo osatuko dute. Hala, 2,50 euroan erosi ahal izango da, hilaren 26an, 27an eta 28an, 13:00etatik 15:00etara, eta 20:00etatik 02:00etara; hilaren 26an, ostera, gauez bakarrik

izango dute eskaintza hori. Txitxi-burruntzi horiekaz gozatzeko aukerarik onena, zelan ez, freskagarri on bat hartzea dela aitortzen du tabernaren arduradunak. Hala, pintxo horregaz batera, La ipa de Ripa etxean egindako garagardo gozoagaz ezarria freskatzea gomendatzen du Lurren tabernako arduradunak, beste 2,50 euroren truke.

Ontzututako txitxi-burruntziez gainera, Lurren kafe-tabernak txapatagaz egindako hainbat ogitar-teko ere eskainiko ditu egun horietan. Merkeena 3,50 euroan erosi ahal izango da, eta garestiena, berriz, 5 euroan. Halaber, urte osoan aurki daitezkeen pintxo eta burruntzi hotzak ere dastatzeko aukera egongo da: 1,20 euroan, bakoitza. ◀

faceguk



Denborarik hartzen duzu oporrek prestatzeko?

MONIKA CONDE ORTIZ

GETXO



Gehien jota, astebete hartzen dut oporrek prestatzeko. Askotan, bizpahiru egun baino ez. Besteek oporrek hartzen dituztenean, lanean ibili behar izaten dut nik; ostalaritzan nabil beharrean...

IBAI FERNANDEZ ROCA


SOPELA



Bat-batean suertatzen badira, ez da prestaketa handirik behar. Opor luzeagoak badira, ostera, pare bat hilabete aurretik hasten gara. Hala ere, bidaiarik ez dugu egingo aruten, umea itxaroten gaudelako.

JORGE MUNICIO FERNANDEZ

SOPELA



Lehen ez genuen denbora askorik hartzen horretarako. Geneukan opor egun-kopurua begiratu, eta Interneten sartzen ginen bidaia aukeratzeko. Orain, haurrakaz, hobeto prestatu behar izaten ditugu.

MIGUEL CABALLERO SANCHEZ

SOPELA



Ez pentsa. Gehien jota hilabete baino ez dugu hartzen oporrek prestatzeko. Hala, oraindino ez dakigu zer egingo dugun; Euskal Herrian zehar ibili, edo hegazkina hartu... Batek daki! Goizegi da.

JOSE MIGUEL MONTESINOS PEÑA

SOPELA



Denboraz egiten ahalegintzen naiz beti. Izan ere, ideien bat baldin badaukazu buruan, hobe da garaietara begiratzea, leku barik ez geratzeko. Hala ere, oraindino ez dut ezer begiratu udarako.

AINZANE CABO BILBAO

SOPELA



Oporrek noiz izango ditugun ez dakigunez, bat-batean egin ohi dugu; asteburu pasa joaten gara, bidaia luzeak programatu beharrean. Ez da soilik lan kontua. Gu-rago dugu etxetik gertu ibiltzea.

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. 48991 GETXO

e-Posta: hiruka@hiruka.eus

Posta Kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Erredakzio-burua: Irantzu Sagaminaga

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Inigo Fernandez de Martikorena, Zuberoa Iturburu

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri

Publizitatea: Erika Martinez / Ninbe Landa

Kudeaketa: Ziortza Merino

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA


Lege Gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95 CC-BY-SA

Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:



Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso ditu